

## Herririk Herri |3|

Hondatutako lurzorua konponduko dituzte Durangoko Alde Zaharrean

## Ekonomia |10|

Langileek greba egingo dute Abadiñoako Rothenberger-en



## Berbaz |9|

Julen Azkoaga: "ESAITen Mendi Martxa abuztuaren 5ean helduko da Atxondora"

## Laku artifiziala eta jolas parkea inauguratu dituzte

**Abadiño** • Aisialdigune berria inauguratu zuten atzo Eroski hipermerkatuaren aldamenean. Laku artifiziala ipini dute: txintxaunak, tiroli-bat eta lakua alde batetik bestera igarotzeko txalupatxoa. Parkea 188.000 euroko inbertsioa izan da.

7

## Javi Etxebarria mendizale berriztarra zazpimilakoaren bila

**KIROLA** • Javi Etxebarria uztailaren 29an Kaxmirrera egingo duen bidaia prestatzen dabil. Indiaren kontrolpean dagoen zonaldean dago Nun mendia (7.135 m.). Gailurrera helitzen saiatuko da berriztarra Amurrioko eta Gasteizko beste sei kideguz.

19

## Alice and the blackfeet: diskoa grabatzeko gertu

**KULTURA** • Orain urtebete inguru elkartu eta hasi ziren euren kanta konpartitzen Alicia Moreno eta Ibon Larrañaga; Rock Izar eskolako beste bi musikarigaz osatu dute taldea.

13



## •Berriz

Eskalatzeko lokal berria ez dago guztiz bukatuta oraindik

4

## •Elorrio

Institutuko eta ikastolako gazteak Saharara joateko dirua batzen

2

## •Iurreta

Udal ortuen araudia onartu dute

6

# Elorrioko gazteen lokalen ordenantza onartu dute

> Gazteen, auzotarren eta jabeen eskubide eta betebeharrak jasotzen ditu ordenantzak

> Lokalek komunak eta su-itzalgailuak izan beharko dituzte, besteak beste.

02



Durangaldeko herri guztietan ohikoak dira gazteak batzen diren lokalak; Elorrioren 22 daude. Juanra de la Cruz



Sagasta auzoa • Anbe Goikoa  
48220 ABADIÑO • Bizkaia  
Tel.: 629 143 944  
IBAI URIEN

## APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

# HERRIRIK HERRI >

ELORRIO

## Gazteen lokalak erregulatzeko ordenantza onartu dute aho batez

Gazteen, auzotarren eta lokaletako jabeen eskubideak eta betebeharrak jasotzen ditu

**E**lorrion gazteak batzen diren behe solairuko 22 lokal dau-de. Jarduera hori erregulatzeko ordenantza landu eta atzoko udalbatzarren aho batez onartu zuten. Niko Moreno alkatearen esanetan, gazteen lokalak "fenomeno nahiko hedatua dira" eta arlo hori erregulatzeko "premia" ikusi dute. Ordenantzagaz gazteen eta lokala dagoen komunitatearen arteko hartu-emana "harmonizatu" gura dute, alde bakoi-tzaren betebeharrak garbi utzita.

**Lokalek komun itxia, su-itzalgailua eta erantzukizun zibileko aseguruia izan behar dute, besteak beste**

Zeregin horretan lokaletako jabeek ere erantzukizuna dute: "Orain arte ez zirela existitzen zirudien".

Beraz, irail inguruan, alegazioak aztertu eta ordenantza behin betiko onartzen dutenean, gazteen lokalak sortzeko prozedura arautua jarraitu beharko dute. Lehenengo Udaletxean jarduera aldaketarako lizentzia eskaera egin beharko dute, beharrezko dokumentazioagaz: lokaleko espazioaren banaketa jasotzen duen plano eta teknikariaren egiaztatzea...

Ondoren, hilabeteko epean, auzoko bizilagunei eskaeraren berri eman eta Konbidentzia Akordioa sinatzeko aukera emango zaie. Akordio horrek zehaztu gabeko epea du, eta auzotarrek deskantsurako eta ongizaterako duten



Elorrion gazteen 22 lokal daude eta "gutxi batzuek bakarrik" sortu dituzte arazoak.

eskubidea aintzatesten du. Arazo-rik sortuko balitz udalaren bitartekaritza ere ahalbidetzen du. Irtenbide batera heldu ezik, akordioa apurtu egin daiteke.

### Gutxieneko baldintzak

Ordenantzak batez ere eremu bi erregulatu gura ditu: Lokalaren

baldintza fisiko minimoak eta jardueraren garapenean sortu daitezkeen arazoak. Gutxiengo baldintzen artean daude lokalak komun itxia, su-itzalgailuak, emergentzia argiteria eta erantzukizun zibileko aseguruia izatea.

Bestelako eskakizunen artean hauek daude: ezingo dute altza-

ririk kalera atera enbarazua sortu dezakeenean, eta lokal batetik gertuen dagoenerako gutxieneko distantzia 20 metrokoa izango da kale berean badaude, eta 10 metrokoa aurrez aurreko espaloietan aurkitzen badira. Arauak ez betetzeak 500etik 5.000 eurora arteko isuna ekarri dezake. ■ J.D.

## Natividad Tera irabazle balkoiak lorez apaintzeko lehiaketan

Valentin Irazola bigarren geratu da eta Begoña Garaizabal hirugarren

Natividad Tera irabazi du Elorriko Merkatarien Elkartek antolatu duen balkoien eta fatxaden lehenengo txapelketa. Epamahiak "loreen konposizio ederra" saritu du. Geranio, alegria eta pentsamenduak erabili ditu, besteak beste. Lan handia eskatu dio, baina gustura egin du: "Goizero eta iluntzero kentzen dizkiet orri hilak

loreei eta sarritan ureztatu behar izaten ditut".

Bigarren tokian Valentin Irazola geratu da, Gazeta auzoko

**Irabazlearen balkoitik "konposizio orokorraren dotorezia" azpimarratu dute**

Endozorrotza baserriko laguna. Baserriko fatxadan atondu dituzte loreak, eta orturako erramintak tartekatu dituzte han eta hemen, "oso efektu dotorea" lortuz epamahiaren iritziz.

Hirugarren saria Begoña Garaizabali eman diote: "Geranio lilak erabili ditu balkoia janzteko, eta oso lan ona egin du". ■ J.D.



Natividad Tera lehenengo saria eman dion balkoi apainduan.

## 25 gazte Saharara joateko dirua batzen

Elorriko Institutuko eta Txintxirri ikastolako gazteek Saharara joan gura dute abenduan

Elorriko Institutuko eta Txintxirri ikastolako 25 bat gazte ekimen berezia prestatzen dabilta. Abenduan Saharara joan gura dute, hango bizimodua ezagutu eta kultura elkartrukea egiteko. Horretarako, bidaia finantzatzen lagunduko dien dirua batzen hasi dira.

Abenduaren 3tik 10era joan gura dute Saharara 15-16 urteko gazteek. Bidaia "ilusio handiz" prestatzen ari direla dio Udane

**Aziza Brahim-ek gaur plazan eskainiko duen kontzertua baliatuko dute kamisetak eta pastelak saltzeko**

Astobitza Txintxirri ikastolako ikasleak: "Esperientzia berria da, eta gogoz hartu dugu".

Saharan hango errealitatea ezagutzeaz gainera, kultur elkartrukeko hartu-emanak ere sortu gura dituzte: "Oraindik ez dugu guztiz zehaztu zer egingo

dugun, baina euren kulturaren berri jaso eta guk geurearen berri ematea da asmoa: Horretarako, dantzak, jokoak, tailerrak... egin gura ditugu", adierazi du Leire Agirreazaldegia Elorriko Institutuko ikasleak.

### Gaur kamisetak salgai

Gaur, 22:30ean, Musikaire programaren barruan, Saharara abeslari Aziza Brahim-ek kontzertua eskainiko du plazan, eta emanaldi hori baliatuko dute stand bat egokitu eta bertan kamisetak eta pastelak saltzeko. Kamisetetan 'Sahara' berba euskaraz ageri da eta 'Elorri' saharar hizkuntzan.

Horrez gainera, dirua batzeko itsulapikoak ere ipini dituzte herriko hainbat taberna eta komertzioetan. ■ J.D.

**Herriko tabernetan eta komertzioetan itsulapikoak ipini dituzte dirua batzeko**



**DURANGO**



Kurutziaga iturriaren pareko tartea hondatuta dago autoak eten barik pasatzen direlako.

# Alde Zaharrea hondatutako lurzoruak konponduko dituzte

Esaterako, Kurutzia gako iturriaren ondoko gunea berriztatuko dute

**A**urrekontu orokorretako ohiko sarreraren %5 alkate dekretu bitartez bideratu daiteke, eta Aitziber Irigoras alkateak portzentaia horri dagozkion 1,6 milioi euroak zertara bideratuko dituzten azaldu du.

Udalak ipiniko dituen 80.000 euroekin eta Eusko Jaurlaritzako Merkagune programatik jaso duten 113.000 euroekin Alde Zaharreko zorua erreperatuko dute. Batetik, Goienkaleko harlauza grisak (erlieberik handiena dutenak) leunduko dituzte. Bestetik, Alde Zaharrea hondatuta dauden lurzoru guztiak konponduko dituzte. Horien artean dago Kurutzia-

gako iturri ondokoa, ibilgailu emariaren ondorioz hondatuta dagoena. Lanak laster hasiko dituzte, esleitzeko prest daude-eta.

### Euskaltegia Azterlanera

Bestalde, sasoi bateko Azterlaneako eraikina (Maristak ikastetxearen ondoan) alokatu du udalak, eta hara tokialdatuko dituzte Euskaltegia eta Berritzegune zerbitzua. Ondorioz, eraikinean egokitzapen lanak egingo dituzte. Lanak ezin go dituzte irailerako amaitu. Berritzegune San Faustoko eraikin batean egon da orain arte. Eraikin hori aurten eraitsi eta zentro zibiko bat egiten hasiko dira.

Durango zonalde batzuk beste jabe batzuekin partekatzen ditu udalak, eta zonalde horietan egin beharreko urbanizazio lanetan udalari dagokion kopururako 265.000 euro bideratuko dituzte.

Alkate dekretu bidez bideratuko dituzten beste 105.000 euro

Larrinagatxun udalaren jabetzako lurzoru bati eusten dion horma indartzeko erabiliko dituzte.

### Goienkaleko lurzoru leundu egingo dute, oinez ibiltzeko "deseroso" dagoelako, Aitziber Irigorasen esanetan

Amaitzeko, 26.500 euro gaz eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailko 239.000 euroko laguntzagaz, Zabalarra herri eskolako teilatua konponduko dute.

### 3,3 milioiko soberakina

Irigorasen esanetan, 2009an 3,3 milioi euroko soberakina izan du udalak. Alde batetik, udaleko sail guztietan doiketak egin dituzte. Era berean, "Udalkutxari bueltatu beharreko hiru milioi euroak 2011tik aurrera hiru urteko epean bueltatuko ditugu". ■ J.D.

**2009an 3,3 milioiko soberakina izan dute, "batzorde guztiak doitu" eta Udalkutxari bueltatu beharrekoa atzeratuta**

# PSEk dio bidegorriko seinaleztapen proposamena "legezkoa" dela

Bidegorrien gaineko mozioari Aitziber Irigorasek egindako kritikei erantzun die PSE-EE alderdiak

Bidegorrian seinaleztapena ahalik arinen egiteko eta zoruan pintura ez labaingarria erabiltzeko eskatuz PSE-EEk udalbatzarrean aurkeztutako mozioa kritikatu zuen, joan zen astean, Aitziber Irigoras alkateak. PSE-EEk kritikei erantzun die. Egia "desitxuratu" saiatu dela salatu du Idokia Agorria zinegotzi sozialistak, eta mozioa betetzeko eskatu dute, udalbatzarrak onartu zuelako.

Mozioa eztabaidatu zen egunean ezer esan ez izana salatu zuen Agorriak: "Hurrengo eguneko prentsaurreko batean egin zituen adierazpenak". Gainera, "mozioa Hirigintza Batzordean ere erakutsi zitzaizen alderdi guztiei, eta orduan ere ez zuten ezer esan". Aitziber Irigorasek dudari ipini zuen zoruko gezieta silue-

ta bakarrik pintatuta uztea legezkoa ote den, eta informe juridikoa eskatu zuela adierazi zuen. Agorriak esan du "proposamena legezkoa" dela, "bere ibilbidea izan duena eta ondo aztertu ondoren aurkeztu duguna". Horrez gainera, gogoratu zuenez, "duda legalik izan balu udalbatzarreko idazkariak hori jakinarazteko ahalmena zuen, eta ezer esan ez

**"Seinaleztapenak aspaldi prest behar zuen. Gura denean gauzak arin egiten dira"**

bazuen, arazo legalik aurkitu ez zuelako da". Gogoratu zuenez, bestalde, "askotan" eskatu dute oinezkoen zebra-bideak kolore bitan ez pintatzeko, eta hala ere hori egiten jarraitu dute".

Seinaleztapenari buruz zera dio: "Badakigu dagoeneko ipintzen ari direna, baina aspaldi ipinita behar zuten. Gura denean gauzak arin egiten dira". ■ J.D.

**"Askotan eskatu dugu zebra-bideak kolore bitan ez pintatzeko, baina berdin egiten jarraitu dute"**

# Arripausuetan zelai berria eta gimnasioa egiten ari dira

Belar artifiziala aldatu eta 2,5 metro zabaldua nazioarteko partiduak hartu ahalko ditu

Denboraldi berrirako berdegune berria izango du Arripausuetak. Horretarako 331.000 euroko aurrekontua bideratu dute eta 10 urteko bermea izango du. "Orain urte batzuk indarrean jarritako araudi baten ondorioz, Arripausueta nazioarteko partiduak hartu ezinda geratu zen; aldaketagaz, berriro hartu ahalko ditu",

adierazi du Ander Gorrotxategi udal zinegotziak. Horrez gainera, aldageletan espazio bat irabazi dute gimnasio txiki bat jartzeko.

Belar artifiziala berezia da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ipintzen den lehenengoa: hiru nerbio zentral ditu eta zazpi zentimetroko altuera, harez eta kautxo poliuretanoz betea. ■ J.D.

# GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI

ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

Antso Estegiz, 1

946 812 247

48200 DURANGO

Zalduasolo, 8

946 827 038

48250 ZALDIBAR

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea

48200 DURANGO

Tel./Faxa: 94 621 54 04

PODOLOGIA 108. Likargokidea

**BERRIZ**

## Lur sail batzuk desjabetu dituzte hiltegia egiteko

Hiltegi berriko lanetarako trami-teak aurrera doaz. Bertara sartze-ko bidea egiteko Ametzualdeko lurak hiru jaberena direla azaldu dute, eguazten honetan, oso-ko bilkuran. Jabe bigaz akordioa lortzera heldu direla esan dute, bai-na jabeetako bategaz ez dute lortu berba egiterik ere urte bi eta erdian. Azaldu dutenez, hura nahitaez desjabetzea "beste erremedio-rik ez" dauka Udalak.

### Nahitaezko desjabetza onartu du Udalak, jabeagaz berba egiterik lortu ez duelako

Lursailen jabea agertuz gero, beste jabeei legez metro karratu-ko diru kopuru bat (9,45 euro) emango diote. 3.807 metro koa-dro desjabetuko ditu Udalak, eta sarbideko lanek irauten duten bitartean 1.994 metro koadro gehiago beharko dituzte.

Alkateak azaldu duenez, "hil-tegiaren lanak tramitazioak amai-tu eta ahal denik lasterren hastea da asmoa". Lur mugimenduak uda eta udazkenean egin gurako lituz-ke-tela adierazi du, baina tramiteen menpe daudela epeak. ■ A.U.



Beste enpresa batek egingo ditu gelditzen diren lanak.

## Eskalatzeko lokala oraindik ez dago guztiz amaituta

Udala eta Amaraune taldeak datorren eguaztenean egingo dute hurrengo batzarra

**E**skalatzeko lokala oraindik ez dago guztiz amaituta. Koltxoia boulderretik urrun gelditu da eta hori hurreratu behar dute, ilungune batean argiak ipini behar dituzte eta skate gunearen ertz batean bigungarria. Lokala gertu egoteko lan horiek amaitzea falta dela adierazi du Puri Perez Kirol Batzordeko Presidenteak. "Enpresak ez zituen konponketa horiek egin, eta esan bage-nion ere ez zuen lana amaitzen", dio Perezek. Beraz, azkenean, "beste enpresa batek emango die amaiera lanei". Amaraune taldea kexu da, "urrian lanen %99 amaituta zegoen eta asko atzeratzen dabil".

Bestalde, hasiera batean lokala-aren arduraren inguruan Amaraune eskalada taldea eta udala ez ziren ados ipintzen. Amaraune taldeak udala arduratzea gura zuen, "udal erakundea" zelako; bestalde, udalak Amaraunek ges-tionatzea hobeto ikusten zuen

"kirol taldeak frontoia eramaten duen moduan". Erabaki hori, bai-na, hartuta dago, eta udala ardu-ratuko da.

Amaraune taldea eta udala hartu-emanetan daude. Orain arte hartutako erabakien artean lokalera sartu-irtenak erregistra-tzeko sistema eta segurtasuna bermatzeko kamara ipintzea dau-de. Sarreran hatz-marka bidezko sistema ipintzea begiratzen dabil-tza. Tarifa, ordutegi eta oinarriz-ko arauen inguruan ere berba egin dute. Amaraune taldeak bilera informatiboa izan du aste hone-tan, eta "arauekin ados" daude.

Udala eta amaraune taldeak hurrengo bilera datorren eguaz-tenean izango dutela adierazi du Puri Perezek, Kirol Batzordeko Presidenteak. ■ G.A.

### Amaraune taldea kexu da "lanak asko atzeratzen" dabilzalako

**ATXONDO**

## Eguaztenean egingo dute oposizioen lehenengo azterketa

Hiru lanpostu daude oposiziotan; peoi lanetarako postu bi eta lantaldeko arduradunaren postua

Apatako frontoian datorren eguaz-tenean oposizioetarako azterke-ta eguna izango dute. Hiru lanpos-tutarako oposizioen azterketa teo-rikoa egingo dute bertan; herriko hainbat lanetarako peoi postu bi eta lantaldeko arduraduna izan-gu denaren postua.

Lehenengo azterketa peoi iza-teko hautagaiena izango da, eta 09:00etan hasiko da. Lantaldeko arduradun izan gura dutenentza-

ko azterketa ordu bi geroago hasi-ko da, 11:00etan.

Guztira, azterketak egiten 200 pertsona baino gehiago egongo da Apatako frontoian. Peoi postuetar-ako azterketarako izena 130 per-sona inguruk eman dute, eta arduradun posturako, berriz, 70 inguruk. Azterketa teorikoa gain-ditzen duten hautagaiek irailan azterketa praktikoa egin beharko dute. ■ A.U.



200 pertsona inguruk egingo dute azterketa Apatako frontoian.

**OTXANDIO**

## Udal idatziak euskara hutsean jasotzeko aukera

Testuetan euskara ulerterreza erabiliko dute; beste hainbat herritan harrera ona izan ei du

*Udalagaz euskaraz* kanpainaren barruan, udaleko idatziak eus-kara hutsez jasotzeko aukera eskainiko dute hemendik aurre-ra. Herritarren artean fitxa bat zabalduko dute, eta hura bete-tzea eta Udaletxeko buzoian

### Otxandiarren %80k baino gehiagok daki euskaraz, eta 2007tik Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean dago

uztea nahiko izango da idatziak euskaraz jasotzeko.

Otxandiarren %80k baino gehiagok daki euskaraz, eta Otxan-dio Udalerrri Euskaldunen Manko-munitateko kide da 2007az geroztik. Horrez gainera, udal bulego-tako behargin guztiak euskaldunak dira, eta azken urteotan "asko aurre-ratu da euskararen udal erabileran", Euskara Batzordeko kideek adie-razi dutenez. Horregatik, beste herri batzuetan legez, "udalagaz euskaraz jardungura duten euskal-

dunei horretarako aukera eskaini gura diegu", adierazi dute Euskara Batzordeko kideek.

**Edonork ulertzeko euskara** Testuetan euskara "ulerterreza" erabiliko ei dute; "edozein euskal-dunek ulertzeko modukoa", azal-du dutenez: "Beste herri batzuetan-

### Beste herri batzuetan "ez dute ezelako arazorik izan" idatziak euskaraz ulertzeko

ko esperientziaren arabera, herri-tarrek ez dute inongo arazorik edukitzen horrelako idatziak uler-tzeko". Beraz, herritarrei "beldurra alde batera utzi" eta ekimenean parte hartzeko gonbita luzatu gura izan diete. ■ J.D.

## Gaztetxoei zuzendutako liburutegia igerilekuan

Hainbat liburu aukeran ipiniko dituzte; gura dutena aukeratu eta astebeterako hartu daiteke

Eguen honetan hasita irailan igerilekuetako denboraldia amai-tu arte Otxandioko igerilekuetan 5-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendatuta liburutegi zerbitzua eskainiko dute. Gaztetxoek gura duten liburu aukeratu, euren datuak utzi eta astebeterako har-tu ahalko dute liburu igerilekuan bertan zein etxean irakurtzeko.

### Horrez gainera, eguenetan musika kontzertuak, zinema eta bideo emanaldiak eskainiko dituzte

Horrez gainera, eguen guztie-tan gaztetxoei zein helduei zuzen-dutako ekintzak antolatuko dituz-te: kantautorek, antzerkia, bideo emanaldiak, zinema, ipuin kon-talariak... Kontzertuak 20:00ak inguruan hasiko dira, eta gazte-txoei zuzendutakoak eguerdian garatuko dituzte.

Otxandion finkatuta dagoen Kataluniako lagun talde batek har-tu du aurren igerilekuetako gida-ritza, eta igerileku zerbitzua bes-telako ekintzekin osatzea erabaki dute. Otxandioko igerilekuak aste-lehenetik domekara egoten dira zabalik, 11:00etatik 20:00etara. Taberna, berriz, 11:00etatik gau-er-dira bitartean. ■ J.D.



**EZ DUT  
SALTZEN  
NEUK EROSIKO  
EZ NUKEEN  
KOTXERIK.**

*Andonik  
esana*

Andoni Baños, Gaursako Aukerako Ibilagailuen Arduraduna.



**MÉGANE DYNAMIQUE**  
1.5 dCi 105cv 5P (2009)

**14.800 €**



**LAGUNA EXPRESSION**  
2.0 dCi 130cv (2008)

**16.200 €**



**SCÉNIC EXPRESSION**  
1.5 dCi 105cv (2009)

**17.800 €**

**RENAULT  
OCASIÓN**

**ZUK DENA NAHI DUZULAKO.**

PSP transferentzi gastuak barne. 09/07/31-rarte edo izakinen amaierarte baliozko eskaintza. Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.



**GAURSA** ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. [www.gaursaautoak.com](http://www.gaursaautoak.com)

**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO. BIZKERRE S/N. TEL. 94 430 68 81. GETXO. [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

**IURRETA**

# Onartu dute udal baratzen erabilera arautuko duen ordenantza

“Aisialdiko udal baratzen erabilera zuzenduko duten arauak” dira ordenantzak biltzen dituenak

**E**Ajko zinegotzi bat falta izan zen joan zen barikuko udalbatzarrean, eta Iñaki Totrikaguena alkatearen kalitateko botoagaz onartu zuten udal baratzen erabilera arautzen duen ordenantza. Jeltzaleek eta Ezker Batu-ko zinegotzietatik, eta PSEko eta PPko ordezkariak proposamenaren kontra bozkatu zuten.

Urkiola Landa Garapena elkartegaz bat eginda, eskaria egiten duten herritarrei udal ortu bat esleitzea helburu duen egitasmoa

**Udal baratzetan ekoizten direnak produktu ekologikoak izan beharko direla zehazten du araudiak**

aurreratuen daukan Durangaldeko herria da Iurreta, ordenantza onartu duen lehenengoa.

Aisialdiko udal baratzen erabilera zuzenduko duten arauak dira barikuan onartutako ordenantza honek zehazten dituenak; besteak beste, udalak izango dituen eskumen eta betebeharrak, ortuak jorrazteko erabili ahalko den tresneria, azpiegituraren mantenuari eta erabilerari dagozkien hainbat irizpide, baratzean sortutako hondakinen tratamendua zelakoa izan behar den (ortuetan sortutako hondakin organikoak berberabiltzeko konpostajerako baliabideak ipiniko dituzte) eta udal baratzetan ekoizten direnak produktu ekologikoak izan behar dutela jasotzen du araudiak.



Herritarrak ortuak erabiltzen urrian hasi ahal izatea gura du udalak.

Udal baratzeak atontzeko obra zibila (tresneria gordetzeko eraikina, hesia etab.) ia amaituta dagoela aipatu digu asteon Totrikaguena alkateak, eta hile honen amaieran edo abuztu hasieran amaitzea aurreikusi dutela udalean. Ortuaren esleipen prozedimenduari irailan ekingo dio uda-

**Azpiegituren kontrolaren eta kudeaketaren ardura izango duen begirale baten figura ere aurreikusi dute araudian**

lak, eta urrirako ortuak prest egotea da helburua.

Udal ortuen azpiegituren kontrola eta kudeaketa bere ardura izango dituen begirale baten figura ere aurreikusi du joan zen barikuan udalean onartu zuten ordenantzak, eta bere egitekoak ere zehazten ditu araudiak. ■ I.E.

**IZURTZA**

# Otxandiar baten kartela aukeratu dute jaietarako

Aurkeztu dituzten bost proposamenetatik, Ainhoa Garate otxandiarrarena hautatu du epaimahaiak

Kultura batzordean batzen diren zinegotzi gehienek botoak jasota aukeratu zuten, joan zen astean, Ainhoa Garate otxandiarrak lehiaketara aurkeztutako kartela herriko iraileko jaiak iragartzeko. Lehiaketaren oinarrietan jasotzen denaren arabera, 250 euroko saria dagokio irabazleari.

Jaiaren elkargune nagusia eta dantzari biren irudia agertzen dituen marrazkia da kartel ir-

bazlearen osagai nagusia. More kolore biziko atzealdean islatzen du kartelak jai giroaren erakusle den uneetako bat.

Bost lagunek aurkeztu dituzte euren proposamenak lehiaketara. Jaso dituzten lan guztiak bildu eta erakusketa batean ikusgai ipiniko dituzte Udaletxean. ■ I.E.

**Jai giroa islatzen duen irudia da kultura batzordeko kideek osatutako epaimahaiak jaiak iragartzeko hautatu duena**

**Jaso dituzten proposamenak bildu, eta udaletxean ikusgai ipintzea dute asmoa**



**MAÑARIA**

# Herriko ia 20 pilotazale binakako txapelketan

Emakumezkoen sei eta gizonezkoen hamahiru bikotek dihardute txapelketan parte hartzen

Ekainean ekin zieten gizonezkoek partiduei, eta laster finalurrekoak igarota, abuztuaren 16an, San Roke egunean jokatu dituzte finalak. Herriko pilota eskolak antolatuta, bestalde, hiru-

**Laster jokatu dituzte gizonezkoek finalurrekoak, eta datorren astean ekingo diete emakumeek partiduei**

garren urtea da aurtengoa emakumezko pilotarien txapelketa ere jokatu dutena. Herriko emakumezkoek osatutako sei bikotek jardungo dute txapelketan.

Herrian tradizio luzeakoa den gizonezkoen txapelketan, bestalde, 16 eta 50 urte bitarteko pilotazaleek dihardute parte hartzen: 13 bikotek eman dute izena.

Astelehen eta martitzenetan jokatu dituzte urtean zehar ere herriko 15 umeren pilota eskolak antolatzen duen mañariarren pilota txapelketako partiduei. ■ I.E.

**MALLABIA**

# Eskolako sukaldea udan eraberrituko dute

Ume kopuruak gora egin duela-eta, duela urte bi herri eskola eraberritzeari ekin zion udalak

Mallabiko Learreta Markina herri eskolan ume kopuruak gora egin du. Eskola egokitzeko obrak duela urte bi martxan jarri zituen udalak. Sukaldea eraberritzea da aurtengo udako oporretan egingo

**Haurreskolako datorren urteko lanak astean onartu ditu udalbatzarrak**

duena. Datorren urtean haurreskolan egin beharreko lanak udalbatzarrak astean onartu ditu. Haurreskolan komun gehiago egingo dituzte. Gela gehiago jarriko dituzte, baita leihoak aldatu ere. Obra honek 309.000 euroko diru-atala eskatzen du. Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntza du. Eskolako komunak eta saneamendua orain urte bi konpondu zituzten. Aldagelak eta frontoia atondu zituzten iaz, jolaslekuak handitu. Eskoletako irisgarritasuna hobetu beharra dagoela azaldu du Aitor Loiola alkateak. ■ J.G.

katerin ardoak  
iñaki uribe  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltsan saltsan.com

gremioen koordinazioa  
**urutiaga**  
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak  
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo  
erakusketa, salmenta eta ipintzea  
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

**Arrike**  
Liburudenda  
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03



ABADIÑO

# Laku artifiziala eta uretan jolasteko gailuak parke berrian

Atzo arratsaldean inauguratu zuten aisialdigune berria; herriko umeek zeukaten 17:00etan parke berrira gerturatzeko gonbidapen berezia

Udarako prest, atzo arratsaldean inauguratu zuten Eroski hipermerkatuaren aldamenean azken urtean atontzen jardun duten eta lazko aurrekontuan jasotako aisialdirako gunea berria. Atzo arratsaldean gozatu zuten umeek parkea lehenengoz.

Atzo goizean egin zuen 188.000 euroko inbertsioagaz eratu duten gunearen hedabideen aurreko aurkezpena udal gobernuak. Jose Luis Navarro alkateak eta Marisa Vazquez zinegotziak egin zituzten gidari lanak. Laku

**Txintxaunak, tirolina bat eta lakuaren alde batetik bestera igarotzeko txalupatxoak atondu dituzte parke berrian**

**lazko aurrekontuan jasotako proiektua da; 188.000 euroko inbertsioagaz burutu dute**

artifiziala eta umeentzako hainbat gailu ipini dituzte: txintxaunak, tirolina bat, lakuaren alde batetik bestera igarotzeko txalupatxoak...

Oraindik amaitu barik dauden lanen artean, gerizpea emango duten pergola bi eta farola berriak aipatu ditu alkateak. Parkeak behar duen elektrizitatea sortuko duen eguzki energia bidezko instalazioa ere eraikitzeke dago.

Datorren urtean, bestalde, lursailaren beheko aldean erretegia eta mahaia ipintzeko asmoa dutela azaldu du alkateak. ■ I.E.



Herriko umeek "gozatu dezaten" atondutako gunea dela esanez aurkeztu du parkea alkateak.

ZALDIBAR

## Postal lehiaketa antolatu dute hirugarren biderrez

Zaldibarko Liburutegiak eta Euskara Sailak antolatuta, 100 euroko saria jasoko du irabazleak

Oporretan zauden lekuan postal bat erosi, euskaraz idatzitako deskribapen labur bat egin eta Zaldibarko Udal Liburutegira irailaren 17a baino lehenago postaz bidaliz gero, 100 euro irabazi daitezke. Bigarren sarituak 60 euro jasoko luke, eta 16 urtetik beharagoek 30 euro. Postala Euskal Herria 5 behea 48250 helbidera bidali behar da, zigiluagaz eta zigilu markagaz. Postalean telefonoa ere ipini behar da. Javier Vidal, Zaldibarko liburutegia adierazi duenez, "sarituko dena postala eta deskribapena polita eta originala izatea da. Hau

da, "postala hondartza eta palmerak ez izatea". Deskribapena laburra izan behar da, eta norbere hitzekin idatzia "lagun bati bidaliko bazenien legez", azaldu du liburutegia. Ondoren, bidaltzen diren postal guztiak erakusketa bat egingo dute Liburutegian.

Aurtengoa hirugarren aldiz da Zaldibarko Liburutegia eta Euskara Sailak postal lehiaketa antolatzen dutena. Ekimenaren helburua euskaraz idaztera bultzatzea da. Aurten liburutegi berriagaz parte-hartze handiagoa itxaroten du liburutegia. ■ G.A.

GARAI

## Bazkarirako izena emateko epea hasi da

Santiago, Santana eta Saninazio jaien barruan herri-bazkaria antolatu du Trumoitte kultur elkarteak, jaiak eratzeaz arduratzen den taldeak. Abuztuaren 1ean izango da hitzordu hori, eta dagoeneko badago izena emateko aukera.

Uztailaren 27an ipini dute azken eguna apuntatzeko. Bazkarian parte hartu gura dutenek Udaletxera joan behar dute; txartela eskuratzeko nagusiek 20 euro ordainduko dute, eta umeek, berriz, 10.

Uztailaren 23an hasi eta herri-bazkariagaz batera amaituko dira Garaiko jaiak. 12.000 euro inguru emango ditu Udalak jaiak prestatzeko. ■ M.O.

ABADIÑO

## Abuztuaren 5etik 8ra bitarte, Salbadore jaiak Gerediagan

Udagaz batera hainbat herri eta auzotako jaiak datoz, eta Gerediagan ere ez diote hutsik egingo urteroko zitari. Abuztuaren 5ean hasiko dira Salbadore jaiak, donien atxa altxatuz, eta lau egunetan zehar makina bat ekitaldi prestatuko dituzte. Tartean lehiaketa ugari izango da: tortilla, bakailao, briska, karabina eta igel txapelketak, asto lasterketa... Abuztuaren 6an, barikuan, bertso saioan izango dira Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Jon Maia, Unai Iturriagaren aginduetara. Egun horretan moduan, egunero ekarriko dute erromeria talderen bat.

DURANGALDEA

## Saharako eta Errusiako umei harrera egin diete eskualdean

Saharako eta Errusiako umeak etorri dira Durangaldera azken egunotan, eta oraindik ere baten bat heltzeko dago. Herria eta Kainabera elkarteek bultzatuta, ume hauek eskualdeko familiekin pasatuko dute uda sasoa. Gaur, Durangoko Udaletxean egin diete harrera urira etorritakoei.

Saharako 30 haur izango dira eskualdean, irailaren 8ra arte. 14 daude Durangon, 11 Elorrion eta 5 Berrizen. Durangokoek askaria egin zuten eguaztenean, Herria elkarteak. Kainaberen bidez 65 ume etorriko dira Euskal Herrira, eta horietatik 29 izango dira eskualdean. 11 astelehenean ailegatuko dira.

ELORRIO

## Andoni Zengotitabengoa gose greban dago berriz ere

Maiatzean gose greban egon ondoren, elorriarrak berriz ere protestari ekin zion uztailearen 10ean. Preso moduan dagozkion esku-bideen alde dihardu gose greban. Familiak bakarrik bisitatu dezake, eta aurrez aurreko bisitak bere bikoteagaz bakarrik baimendu dizkiote. 24 orduak isolatuta ematen ditu; 23 zeldan. Astean telefono dei bi egiteko aukera dauka, eta ez diote ikasketak burutzen utzi. Aurrez aurrekoen ondoren, odol eta txiz analisiak egingo dituzte. Ez diote izaera politikoa onartzen, eta greban dagoenetik liburutegira eta gimnasia joatea debekatu diote.

## Alex Castañaresek irabazi du jaietako kartel lehiaketa

2010eko Ferixa Nausikoak iragarriko dituen 'Kolare biziak' izeneko irudian, koadrodun zapi buruan duela jaietako soinuak zabaltzen dituen lagun bat ageri da. Uztailearen 12an eman zuen erabakia epaimahaia. Mahai honetako kideek, berrikuntza moduan, aurretik jendearen iritzia jakiteko aukera izan dute. Cristina Sierra kultura zinegotzia, Javier Salaberria eta M<sup>a</sup> Carmen Muñoz zinegotziak, Maitane Iribar udaleko berdintasun teknikaria eta Jose Ramon Lazkano eta Iñaki Larrañaga jai batzordeko kideek osatu dute epaimahaia. Horiek guztiak Lorea Litrago diseinatzailearen aholkularitzapean jardun dute.



**BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

**URTXINTXA**

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK  
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

Hemen agertu gura baduzu  
**deitu!**

94 621 79 02

# EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



www.euskolabel.net

## Eusko Labelaren K-rekin

Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.

Kalitatea Fundazioa



Zu zaintzeko zaindua

- |  |   |   |  |  |  |   |  |                      |  |  |  |
|--|---|---|--|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|
| <b>Euskal Okela</b><br>Carnes de Vacuno del País Vasco | <b>Euskal Esne Bildotsa</b><br>Condensado Lechal del País Vasco | <b>Gernikako Piperra</b><br>Pimiento de Gernika | <b>Hegaluzea eta Hegalaburra</b><br>Brisita del Norte y Atola Rojo | <b>Euskal Baserriko Arrautza</b><br>Huevo de Caserío Vasco | <b>Euskal Baserriko Oilaskoa</b><br>Pelle de Caserío Vasco | <b>Euskal Esnea</b><br>Leche del País Vasco | <b>Ibarrako Piparrak</b><br>Baindillas de Ibarra | <b>Eztia</b><br>Miel | <b>Euskal Tomatea</b><br>Tomate del País Vasco | <b>Arabako Patata</b><br>Patata de Alava | <b>Euskal Babarrunak</b><br>Alubias del País Vasco |
|--|---|---|--|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|

## Eusko Labela: ona den seinale



Goi-mailako elikagaiak  
Alimentos de calidad superior

hile honetako irabazlea:



Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- |  |  |
|--|--|
| <b>Abadiño</b><br>• PINILLA HARATEGIA<br>TRAÑABARREN, 29-MATIENA | <b>Durango</b><br>• GALLASTEGI HARATEGIA<br>ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1 |
| <b>Zaldibar</b><br>• GALLASTEGI HARATEGIA<br>ZALDUASOLO PLAZA, 8 | • IÑAKI HARATEGIA<br>SASIKOA KALEA, 10                             |
| <b>Otxandio</b><br>• GAZTAÑETA HARATEGIA<br>ARTEKALE, 25         | • OKA HARATEGIA<br>ANDRA MARI, 3                                   |

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

**Especializatuak:** Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak



Marisa Lejardi (Zaldibar)

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"  
Anboto Astekaria  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, Idiazabal gazta, botela 1 "Bizkaiko Txokolina", botela 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botila 1 Arabar Errioxako Olio Birjina, Txakalinezko bonbol-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bildotsaz edo Euskal Baserriko Oilaskoz trukatzeko.



# BERBAZ >

## “Euskal selekzioa aldarrikatzea eta indarrak batzea da Mendi Martxaren helburua”

Hamargarren Mendi Martxa antolatu du ESAITek. Atxondotik ere pasatuko da; azken zehaztasunak lotzen dabilta



### Julen Azkoaga •

- ESAITen Mendi Martxan Durangaldeko etapa antolatzen dabilen lagun taldekoa da
- Ezkerretik eskumara: Julen Azkoaga, Unai Azkune, Beñat Azkoaga eta Gorka Gorrotxategi

**E**SAITek Euskal Selektzioaren aldeko 10. Mendi Martxa antolatu du aurten. Uztailearen 31tik abuztuaren 8ra egingo dute ibilaldia, eta gure eskualdetik ere pasatuko da. Abuztuaren 5ean martxa Atxondora helduko da, Elgetatik, eta hurrengo egunean Aramaiora joango da. Durangaldeko etapak antolatzen Durangaldeko lagun talde bat dabil. Euretako bat da Julen Azkoaga.

*Euskal Herriko hainbat herritatik pasatuko da Mendi Martxa...* Ez da beti Euskal Herriko probintzia guztietatik pasatzen, baina aurtengoan bai. Normalean, zortzi egun izaten dira. Aurten hamargarren aldia denez, egun bat gehiago izango du, eta Elgetan

“16 urtegaz joan nintzen lehenengoz, eta ordutik urtero errepikatu dut”

egun osoko jaialdia egingo dugu, abuztuaren 4an. Aurten, gainera, lehen Mendi Martxako ibilbidea egingo da, baina aurkako norabidean.

#### *Denboratxoa daroazu Mendi Martxan parte hartzen.*

Lagun batzuekin joan nintzen lehenengoz, eta orduan 16 urte genituen. Gurasoen lagun batzuekin joan ginen, eta partaideen artean nahiko umeak ginen orduan. Urteror urtero joaten jarraitu dugu, eta hau bosgarrena izango da. Bertako jendea ezagutu eta konfiantza hartu dugu. Aurten Durangaldetik pasatzen dela ikusita, bertako etapak antolatzen ibiltzeko eskatu digute.

#### *‘Sherpa’ lana ere egin duzue ari-nago.*

Lehenengo urtean eurek eskatuta etapa baten sherpa lana esaten dena egin genuen. Gutxienez, lau bat lagun egoten dira bai aurrean bai atzean; walkiekin jendea bidea erakusten eta seinaleak jartzen egon behar izaten dira. Iaz hori egin

genuen, eta aurten, etapan sherpa lana egiteaz gainera, Atxondoko harrera eta ekitaldiak prestatuko ditugu.

#### *Zer prestatu duzue?*

Herri guztietan izaten da harrera moduko bat, eta hori prestatzeaz gainera, orain Atxondo eta inguruetako kultur eta kirol eragileen atxiki-

finean, mendi martxaren helburua hori da: aldarrikatzea, nazio garen herri legez, euskal selekzioa behar dugula, eta indarrak batzea.

#### *Martxa egitekotan, osorik egin behar da?*

Dena egitera edo egun solteak egitera joan daiteke. Mendi Martxa guztia egiteko

“ESAITen webgunean dago Mendi Martxa egiteko informazioa; egun solteetan ere joan daiteke, borondatea emanda”

menduak jasotzen gabilta. Martxa Atxondora heltzean harrera ekitaldia egingo dugu, eta saiatuko gara kirolariaren bat ekartzen. Gero herri gehienetan herri-afaria prestatzen saiatzen gara, eta kontzerturen bat ere lotu gura dugu. Kontua martxako jendeaz gainera Atxondoko eta inguruetako jendea bertaratzea da. Garrantzitsua izaten da talde eta pertsonen atxikimenduak batzea. Azken

izena emateko epea zabalik dago, eta ESAITen webgunean topatu daiteke zer egin behar den. 200 euro jartzen dira, eta etapa bakoitzean, egunerako behar duzuna baino ez duzu eramaten aldean; kamioi txiki bat dago beste gauza guztiekin. Herri batera heltzen garenean, afaria, lo egiteko lekua, dutxak... egoten dira. Ezin duenari osorik egin, egunean bertan borondatea ordain-

“Mendiko etapez gainera, herrietako ekitaldiak ere oso aberasgarriak dira”

tzea eskatzen diogu. Partaideei dagokienez, 100 pertsonako muga jartzen da, baina ez dago arazorik egun baten gerturatu eta etapa solteak egiteko.

#### *Etapak zelakoak izaten dira? Prestatuta egon behar da?*

Ez da mendizale profesionala izan behar, baina apur bat mendian ibilita egotea komeni da. Etapak normalean arazo barik egitekoak dira, baina etapa egiteko indar barik egonez gero furgoneta bat dago hurrengo herriraino joateko. Jendeak ez dezala beldurrik eduki. Mendi Martxak daukan gauza ona hori da, mendian egiten dugula, egunean 6-8 ordu izaten dira, eta ez mendian bakarrik, herriak ezagutzeko aukera ere egoten da, eta ekitaldi asko. Oso aberasgarria da eta jende jatorrak hartzen du parte. Ea Durangaldeko gazteak, batez ere, animatzen diren! ■ A.Ugalde

# EKONOMIA<sup>></sup>

## >ABADIÑO

**R**othenberger Abadiño enpresan Enpresa Komitea mobilizazioekin hasi da aste honetan. Baina, Sindikatuek diotenez, datorren astelehenetik eguenera txanda bakoitzean lau orduko greba egingo dute. Beharginek konbenioa negoziatu gura dute. Izan ere, aurreko bi urteetan soldatak izoztu egin zituzten, enpresaren egoeratik, eta "galera horien zati bat berreskuratu gura dugu", dio CCOO sindikatuko Roberto Martínek. Bi urte horietako KPIak eguneratzea eskatzen dute beharginek, datorren urteko lehen seihileetan beranduen jota. Martínek dioenez, "enpresaren egoera hobea da bai eskaeretan bai emaitzetan, baina enpresak soldadak bere horretan utzi gura ditu, igoerarik barik, eta ez dugu onartzen". Bestalde, Gizpuzkoako metal arloko konbenioan onurak badaude horiek ere ezartzea eskatzen dute.

Enpresak grebaren eragina txikitzeko ordutegien malgutzea ezarri duela azaldu dute sindikatuek; "larunbatean lan egitea eskatu digute". Baina Enpresa Komiteak asanbladara deitu du neurri horrekin ados ez dagoelako eta "lanik ez egiteko" eskatzeko. Enpresa Komitea bihar enpresara joango da, "bozkaturakoa errespetatzeko eta greba bateratuta hasteko". ■ G.A

## Langileek greba egingo dute Rothenberger-en

Enpresa Komiteak deituta, mobilizazioak egin dituzte aste honetan



Astelehenetik eguenera txanda bakoitzean lau orduko greba egingo dute.

## EMAn 14 beharginek onartu dute kalte-ordaina

Kontsulta epea hilabete luzatu behar izan dute, dokumentu batzuk aurkeztea falta zelako

El Material Aislante epresako zuzendaritza eta sindikatuek azken batzarrean konpromiso batzuk hartu zituzten, baina dokumentu batzuen faltan kontsulta epea hilabete luzatu dute. LABek dioenez, "bileran hartutako konpromisoak enpresaren aldetik zertan gelditzen diren ikusi beharko dugu orain". Enpresak lan delegaritzan aurkeztutako hamabost

kaleratzen artean, hamalau langilek enpresak eskainitako kalte-ordaina onartu dute. Kalera joan gura ez duen beharginari dagokionez, berriz, enpresan jarraitzeko konpromisoa hartu du EMak, lan-poltsa sortuz; LEEa irauten duen bitartean postuak mantenduko dira. Eta LEEa sindikatuen sinadura barik joango da, "lan agintaritzak hartuko du erabakia". ■ G.A

## >DURANGALDEA

### Energia kontsumoa aurrezteko auditoriak

+ Dendak elkarteak kudeatuko ditu auditoriak

Durangaldeko dendek %15 eta %25 bitarteko energia kontsumoa aurrezteko +Dendak elkarteak ikuskaritzak kudeatuko ditu, negozioen "lehiakortasunerako garrantzitsutzat" daukatelako.

Auditoriek egindako txostenean denda bakoitzean energia kontsumoa txikitu eta horrela dirua aurrezteko egin beharreko hobe-kuntzak zehaztuko dituzte.

Kostuari dagokionez, batez-beste, denda bakoitzak 75 euro ordaindu beharko du; +Dendak en egoitzan eman behar da izena.

#### Trukerako 100 txartel saritan

Txartela erabiltzean pizza, gosari eta meriendengatik trukatzeko 100 txartel irabazteko aukera eskaintzen du +Dendak-ek, Telepizza eta Café Misarben alda daitezke. ■ G.A

## ■kolaborazinoa



Ainhoa Iturbe  
EHNE sindikatua

## Ekonomiaren traktoreak vs. traktorearen ekonomia

Ekonomia eta krisia gora eta behera dabilgu denok aspaldi honetan. Batzuk, handiek, hobetzen doala errepikatuz, krisia amaierara heltzen ari delako; langileek, lan egin guran, krisiaren tunelaren amaiera non ote dagoen antzeman ezinik, EREen aroan buru-belarri sartuta.

Ahaztu zaigu ekonomi modeloaren inguruko hausnarketa egin beharra. Bi mila euroko bonoa kotxeak erosteko, hirurehun euroko bonoa altzariak erosteko eta euro bateko bonoa "la chispa de la vida" den Coca-Cola edan ahal izateko.

Horrela konpondu digute ekonomia eta bizimodua. Kontsumitu, kontsumitu... Marxek, Grouchok esan zuena parafraseatuz, kontsumitu, gerra da eta. Eta kontsumitzen ez badugu nonon gerra bat, beste bat gehiago, antolatuta beharko dugu, Irakeko petrolio eskuratzeko, Hego Amerikako uretaz jabetzeko edo Somaliako atuna izateko fresko-fresko.

Sarritan diote ekonomiaren traktoreak behar ditugula gure bizimoduak mantentzeko, aberastasunari eusteko. Traktorez traktore, orain dela 20 urte, Euskal Autonomia Erkidegoan 15.000 behitegi zeuden, eta orain 800 beste-rik ez; Bizkaiari dagokionez, 1991. urtean 11.000 pertsona baino gehiago zeuden lanean nekazaritzarekin zuzenean lotuta, 2001. urtean 5.000 pasatxo, eta gaur egun?

Eskualdeko lur gero eta gehiago porlanez estaltzen da, ustez ekonomiaren traktoreak diren eraikuntza eta automozioarentzako, eta bitartean mundu guztiak, politikari, funtzionario, herriak guretzat egunerokoa den zerbait ahazten du: baserriarrok traktorearen ekonomia ekonomia traktore bihurtzen dugula, egunero behar dugun jatekoa sortzeko lanpostu askoren sortzea ere ekar dezakeela.

Altzariak Dekorazioa

**maderlan**  
Bilbao etorbidea, 9 behea • 48250 Zaldibar  
Tel.: 94 622 50 74

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

# KULTURA >



MUSIKA > LEHIAKETA

## Danbaka lehiaketaren laugarren edizioa prest

**I**railaren 17ra arteko tartea dute Danbaka musika lehiaketan izena eman gura duten Debagoieneko, Debarreneko eta Durangaldeko musika taldeek. Izena emateko epea zabalik dagoela iragarri eta Durangaldeko musikariak parte hartzera deitu dituzte aurreko edizioan parte hartu zuen Ymotek taldeko kide bik eta antolatzaileek Plateruenean.

Laugarren edizioa du Danbakak aurtengoa, eta aipatutako hiru eskualdeetako proposamen musikalen isla izango dira Elgetako Espaloia kafe antzokian urrian, azaroan eta abenduan izango diren zuzenekoak. Taldeentzako euren lana erakusteko aukera, eta eskualdeotako musikazale guz-

tientzako, Durangaldean, Debagoienean eta Debarrenean bizibizirik dagoen musika mugimenduaren emaitzak ezagutzeko aukera da Danbaka lehiaketa.

Izena ematen dutenetatik lehiaketan parte hartuko duten 19 taldeak epaimahaiak hautatuko ditu, eta ikusleek aukeratuko dute hogeigarrena. Hiru sari daude; sari nagusia, Debagoieneko talde onenaren saria eta ikuslearen saria.

“Euskal Herrian dugun aukera onena” dela-eta, euren lanak Danbakara bidaltzera animatu ditu Ymotekeko Asier Otadiuk Durangaldeko taldeak: hiru kanta eta taldearen datuak bidaltzera. Informazio gehiago [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com) helbidean duzue. ■ I.E.

Bigarren urtez, Durangaldeko musikariek ere har dezakete parte

### 12 Folklore jaialdiak Durangaldean

Uztailaren 23an Bulgaria eta Brasilgo dantzak ditugu Berrizen, eta uztailaren 30erako antolatu du Kriskitin taldeak Dagestango dantzarien emanaldia Durangon.



13

### Alice & The Blackfeet

Rock Izar eskolan sortutako proiektua da Alicia Moreno gaztea kantari duena: Ibon Larrañaga, Dani Ortega eta Dario Campos ditu taldekide.

DANTZA > EMANALDIAK

# Munduko dantza eta musikak Berriz eta Durangon uztailan

Uztailaren 22an eta 23an Berrizko Olakueta frontoian eta uztailaren 30ean Durangoko Andra Mariko elizpean dira folklore jaialdien emanaldiak

**U**ztailaren 22 eta 23an, 20:00etan dira Olakueta frontoiko munduko dantzen emanaldiak. Azken urteetako ohiturari jarrituz, Portugaleteko Nazioarteko folklore jaialdian parte hartzen dutenari bi taldek eskainiko dituzte euren kulturako dantzak Berrizen.

Brasilgo Banze taldearen emanaldia uztailaren 22an, eta Bulgariako Naiden Kirov taldearena uztailaren 23an antolatuta dituzte Berrizen. Umeek euro batean eta nagusiek bostean eskuratu ahalko dute emanaldirako sarrera.

**Dagestan Durangon**

Durangon ere, azken urteetako ohiturari jarraituz dauzkagu beste herrialde batzuetako dantzen erakusleak uztailan bisitan. Kriskitin dantza taldeak antolatuta duen eta Uda Kalean Bizi programazioaren barruan dagoen nazioarteko folklore jaialdiaren emanal-

Brasil eta Bulgariako dantzak uztailaren 22an eta 23an Berrizen

Uztailaren 30ean, Dagestango taldearen dantzak Andra Marian

dia da, uztailaren 30ean 22:30ean, Andra Marian egingo dutena.

Felix Arkarazok egingo du Dagestango Errepublikako Leginka taldearen aurkezpena, eta ondoren igoko dira taldeko 35 dantzariak oholtza gainera. Taldeari izena ematen diona, Kaukaso-

ko sinboloetako bat den Leginka dantza, eskainiko dute besteak beste. Orain mende erdi sortu zuten gaur egun 24 gizon eta 11 emakume osatzen duten taldea. Herri-dantzen emanaldihuts legez barik, euren herriaren historiaren zati baten antzeppen moduan ere ulertzen dute folklorea uztailaren 30ean Durangon izango ditugun dantzariak.

Beste 200 dantza taldegaz jardungo du Kriskitinek Italian

**Kriskitin Europeaden**

Urteroko uztailako nazioarteko folklorea jaialdiaren aurretik, uztailaren 16tik 28ra bitartean, beste hitzordu bat dauka Durangoko Kriskitin taldeak: Italiako Bolzano herrian antolatzen duten Europeade folklorea jaialdian hartuko dute parte dantzariak.

Europako hainbat herrialdeko 203 dantza taldek hartuko dute Europeade jaialdiaren 47. edizio honetan parte, tartean Durangoko Kriskitinek: "Hizkuntza, ohitura, dantza eta musika anitzak ezagutu eta geurea erakustera goaz Italiara". ■ I.E.

JAIALDIA > EMANALDIAK

## Uztailaren 25era arte, sei kultur emanaldi interesgarri Elorrioko Musikairen

Toni Zenet musikariaren emanaldiagaz amaituko da, uztailaren 25ean, hamabigarren Musikaire

Iazko urte amaieran kaleratu zuen *Haizea garizumakoa* diskoan batutako kantak zein hiru hamarkadako ibilbidean hain ezagun egindako kantak eskainiko ditu Ruper Ordorika musikariak Elorrioren. Hasier Oleaga baterian, Arkaitz Miner gitarran, mandolinan eta bibolinean, eta Lutxo Neira baxuan izango ditu Ordorikak Musikaire jaialdiaren barruan eskainiko duen kontzertuan lagun. Uztailaren 17an, 22:30ean, herriko plazan da hitzordua.

Abenduan diskoa kaleratu zuenetik dabil Ruper Ordorika oñatiarra, bere berbetan, "kantak jendaurrean borobiltzen"; diskoa Plateruenean aurkeztu zuenean

azaldu zigunez, kantak egokitzen joaten dira kontzertuetan.

Ordorikaren aurretik, gaur da asteburu honetako Musikaire jaialdiaren lehenengo zita: Aziza Brahim saharar musikariaren emanaldia dugu gaur.

'Haizea garizumakoa' diskoko kantak joko ditu Ordorikak bihar

Ordorikarena eta beste bost kultur emanaldi aukeran Musikairen

Uztailaren 25ean jaialdiaren XII. edizioa azken kontzertua eskainiko duen Toni Zenet musikariaren aurretik, uda, kalea eta kultura haizetara gozatzeko hainbat proposamen ditugu Elorrioren: Trapu Zaharra konpainiaren umorez jositako *El Pisito* antzezlan, uztailaren 18an, Audience talde gernikarraren eta Graffiti Classics taldearen musika ditugu entzugai. Toni Zenet kantaera bereziagaz amaituko da jaialdia. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA

Jose Luis Lizundia Euskaltzaina



## Parke politikaz

Durangaldeak ez dut uste parke politika amankomunik duenik. Ene ustez, Amankomunazgoak arduratu beharko luke horretaz herri guztien mesederako. Zeren eta gure eskualdeak dituen adina mendi, baso eta naturgune eder, hain eskura, oso gutxi izango dute Euskal Herrian. 1921ean, gure uri nagusian Euskaltzaindiak eratu zuen lehen kongresuaren amaieran R.M. Azkuek zioen bezala, "ederrak dira Durangaldeko mendi eskerga tontortsu horrek...": Ipar: Oizmendia, bere kume txikiak: Sarrimendi, Egi-luze, Jandolamendi, Añao, Arakaldo, Gallanda... (noizko Oiz parke natural bihurtu, beste zortzi-bederatzi udalen partaidetzarekin?); Hego: Anboto, Alluitz, Astxiki, Urkiolagirre, Untzillatx, Eskuagatz, Arranatx, Mugarra...; ahantzi gabe, Ekialdeko Udalatx, Erdella, Santamariñazar, Urko... Berandu baino lehen erakunde horrek, elkarte zenbaitek bultzaturik eta Foru eta Autonomia Administrazioen laguntzaz, ez ote luke plangintza orokor bat gauzatu behar?

Urkiolako parke naturalean nola ez daude sartuta eskualdearen hegoaldeko herri-baso guztiak? Bestalde, konparatzen badugu Arantzazuko Santutegiaren inguruan zer proiektu soziokultural oparoa dagoen martxan: Bitoriano Gandiaga, Elkarri eta beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes aberatsaz, eta zer xume dagoen Urkiolako Santutegiaren ingurua, bertako abade komunitatearen ahalegin txalogarri bakartiak gorabehera, bistan da zein ateratzen den galtzaile.

Eta plangintza horretan ez lirateke alboratu behar herri bakoitzeko parke txikiagoak, herri-baso gehienak aprobetxatuz. Une honetan idazten nabilen gelatik aurrez aurre ikusten dut egunero Sanrokebaso, gure uriaren herri-basoa. Hor dago kaletik hurrean, urteetan entresakarik egin gabe, zuhaitzen hasiera normala kaltetzen, jagon barik. Leku aproposa, beraz, udal parke bat gauzatzeko. Tartean, inbidia pixka bat ematen du durangar alkate bat Bilbon parke lokalez egiten ari den politikak. Adibide bat baino ez da eskualdeko beste herrietako ere.

MUSIKA > LEHIAKETA

## Sari bi ekarri ditu Bartolome Ertzillako abesbatzak Portugaletik

Uztailako lehenengo asteburuan hartu dute abesbatzen nazioarteko lehiaketan parte

Musika sakro modalitatean bigarren saria, 500 eurokoa, jaso du Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako ahots zurien taldeak (lehenengo saria eman barik utzi du epaimahaiak). Folklore modalitatean 250 euroko hirugarren saria (Singapur eta Bulgariako taldeen atzetik), eta zilarrezko diploma bat ere ekarri dituzte nazioarteko lehiaketatik.

Txapelketako 750 euroko sari nagusia Collegium Musicum Poloniako abesbatzak jaso zuen uztailako lehenengo lau eguntan jokatu zen lehiaketan. Poloniako talde irabazleaz gainera, beste hamahiru herrialdeko

Sari nagusia Poloniako Collegium Musicum abesbatzak irabazi du

Kanta sakro modalitateko 500 euroko saria jaso dute

kantari abesbatzek ere hartu zuten txapelketan parte; besteak beste, Bulgaria, Estonia, Eslovaquia, Portugal eta Singapurreko abesbatzak ere batu ziren.

Jon Ugarriza zuzendariaren aginduetara kantatu zuten Durangaldeko hamabost emakumeek, abesbatzen nazioarteko lehiaketaren hiru modalitateetan hartu zuten parte: kanta sakro, ganbera kantu sakro eta folkean. Esan bezala, parte hartu zuten hiruretako bitan jaso dute saria.

Bartolome Ertzilla musika eskolan 1998an sortutako ahots zurien abesbatza asebeteta buel-tatu da lehiaketatik. ■ I.E.



MUSIKA > ELKARRIZKETA

# Alice and The Blackfeet, euren unea ailegatu den sentsazioagaz

Alicia Moreno 20 urteko abeslaria, eta Ibon Larrañaga, Dario Campos eta Dani Ortega musikariak dira **Alice & The Blackfeet**. Orain urtebetetik, gaztetasuna eta esperientzia uztartzen dituen laukotean dihardute. Hainbat kontzertu dituzte udarako lotuta, eta lehenengo diskoa grabatzeko ere aprobeztatu gura dutela udan esan digute. Aliciagaz eta Ibonegaz batu gara Rock Izar eskolako euren lokalean.



www.myspace.com/aliceandtheblackfeet

**Rock Izar eskolaren inguruan sortutako taldea zarete.**

**Alicia:** Bai, Rock Izar eskolako ikasle edo irakasleak gara laurok: Dario eta Ibon irakasleak, eta Dani eta biok ikasleak.

**Zelan sortu zenuten taldea?**

**Ibon:** Aliciaren inguruan sortutako taldea dela esan daiteke. Aliciaren dohainak ikusi, taldea sortzea proposatu eta musikariok bere inguruan batuta sortu genuen taldea, iaz. Bion artean hasi ginen abestiak prestatzen.

**Ibon, zer berezitasun ikusi zenion Aliciari bere inguruan taldea sortzea proposatzeko?**

Lehenago ere Rock Izar eskolako ikasleen diskoak editatu izan

ditugu (Malo, Mongo...). Zeozer interesgarria egiten dutela uste dugun ikasleei proposatu egiten dizkiegu proiektuak. Zeozer interesgarria edo berezia ikusten badugu, bultzatu eta laguntzea da gure ideia. Baina beharbada, bai, hau da lehenengo aldia ikasle baten inguruan talde bat sortzen dugula. Eskolan badago oso ondo abesten edo teknika handia duen jendea, baina Aliciaren kasua da harrapatu egiten zaituen zeozer berezia duena. Hain justu ere, horixe da topatzen gaitzen egiten dena, berezko zera hori.

**Beste talde batzuetan ibili zaretenon esperientzia eta Aliciaren freskotasuna uztartzen dituzue.**

**Alicia:** Bai, talde bategaz jarduten

“Lehenengo diskoa ateratzeko nahikoa kanta daukagu, eta grabatzea da asmoa”

“Esperientzia eta uneei buruzkoak izaten dira letrak; ez istorio konkretuak”

dudan lehenengo aldia da hau niretzat, orain arte beti nire kontura aritu naiz. Niretzako dena da berria, eta benetan oso gustura nabil.

**Zelan sortzen dituzue kantak?**

**Ibon:** Hasierako ideia eta konposizioa Aliciarena edo nirea izaten da, eta denon artean moldatzen dugu lokalean gero. Taldeko bakoitzak bere aletxoa ipintzen du, eta denon artean egiten ditugu konponketa guztiak.

**Kontzertu batzuk eman dituzue dagoeneko. Zelako sentsazioak utzi dizkizue estreina-ko zuzenekoak?**

**Alicia:** Lau kontzertu eskaini ditugu, eta uztaila eta abuztu-

rako ere badauzkagu batzuk lotuta. Oso gustura gaude orain arteko emaitzagaz; kontzertutik kontzertura igartzen dugu hobekuntza. Jendea gustura egon da, eta kontzertu txikiak izan diren arren, pozik gaude egindakoagaz; akustikoan jo ditugu hiru, eta elektrikoan bat.

**Ibon:** Musikari gehienoi aldrebes gertatzen zaigun arren, entseguetan baino hobeto egiten du Aliciak kontzertuetan; hasi egiten da zuzenekoetan.

**Kontzertuak eskaintzeko ez eze, diskoa grabatzeko ere aprobeztatu gura duzue uda...**

**Ibon:** Bai, dauzkagun kantak grabatu eta urrian aurkeztea da asmoa. Orain arte presa barik jardun dugu, baina unea ailegatu den sentsazioa daukagu. Diskorako kanta nahikoa daukagu, eta grabatu egin gura ditugu.

**Berrik ingelesez idazten dituzue. Elkarregaz egiten dituzue?**

**Alicia:** Batzuetan bai, baina bakarka egindakoak ere badaude. Ingelesez kantatzea, entzun izan dudana musika beti ingelesez izan delako izan daiteke... Naturalen egiten zaidana da.

**Ibon:** Gainera, ingeles literaturara ikasten dabilenez Alicia, jakin badakiz zer esaten dabilen, eta igarri egiten da hori ere.

**Kantetako letrak zer eragin inguruan osatzen dituzue?**

**Ibon:** Batzuek esanahi zehatzik ez daukate, eta sentsazio edo bizipen bati buruzkoak izaten dira beste batzuk. Elkarrengandik oso ezberdinak garen arren, idazterakoan antzeko estiloa daukagu: normalean kantak ez dira gauza zehatz bati buruzkoak; uneei eta esperientziei buruzkoak izaten dira, ez dira istorio oso konkretuak.

**Alicia:** Maitasunari buruzkoak dira letra asko, baina badaude gai politikoei buruzkoak ere.

**Zer erreferentzia edo eragin dauka zuen musika?**

**Alicia:** Ez dakit... baina, Janis Joplin eta The Cramberries oso gustuko ditut, esaterako.

**Ibon:** Musikari bakoitzaren gustuaren arabera, gure kantek ere soul, rock klasiko, pop-indie, flamenko edo metal ikutua dute. Oso aberasgarria da hori. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

eskatu ezazu Plateruenean

**menuBONOA**

ordaindu 5 menu eta 6 jan

1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6. dohainik

ABUZTUAN ITXITA EGONGO DA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**MALAS COMPAÑIAS ZIRKO TALDEA**  
Oilaskoetxea  
Udaletxeko plaza  
Uztailak 18 • 19:00

**KUKAI DANTZA TALDEA**  
Soka  
Ezkurdi plaza  
Uztailak 23 • 19:00 eta 20:00

UDA KALEAN BIZI 2010

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11:51 601 07 76 Artekale, 14 Durango



# LAUHANKA >



Zaldiarentzat gaixotasun arriskutsuena kolikoak dira



Zaldian ibiltzea onuragarria da muskuluentzat, orekarentzat eta artikulazioentzat

Zaldiak sentsazioekiko oso sentiberak izaten dira

## Zaldien zaintzan kaskoen garbiketa ezinbestekoa da

Garbiketaren bitartez zaldiak zaintzailea ezagutzen du eta beragazko konfidantza hartzen du.

Zaldiaren jatorria Eohippus izenez ezagutzen da, eta 55 milioi urte izan ditzakeela uste dute; Ipar Amerikan aurkitu zuten lehen fosila. Aldaketa klimatikoen ondorioz, espezieak eboluzionatu egin zuen. Zaldi arabiarra da arraza puru zaharrena.

### Garbiketa

Box batean bizi diren zaldiak egunero garbitu behar dira, ile soltea kentzeko, zikinkeria eta oinarrizko higieua mantentzeko. Garbiketa egiten den denbora zaldiagaz hartu-eman sortu eta elkar ezagutzeko aukera da. Garbiketaren bitartez zaldia zaintzaileagaz familiarizatzen doa, eta konfiantza hartzen hasten da. Izan ere, zaldia sentsazioekiko oso sentibera da.

Zaldian ibili aurretik garbitu behar da, eta baita ondoren ere. Lehenengo kaskoak garbitu

behar dira. Oso garrantzitsua da kaskoak garbi mantentzea, objekturen bat sartuz gero zauri larriak sortu baitiezazkioke. Ondoren, ilea ondo orraztu behar zaio azalean arazorik ez edukitzeko. Zaldi gainean ibili ondoren hankak garbitu behar zaizkio, beti kaskoetatik gora. Tendoiak lasaitzen lagunduko dio horrek, eta lesioak ekiditen. Hori neguan egiten da; udan, berriz, osorik dutxatu behar da.

### Kolikoak

Zaldiarentzat gaixotasun arriskutsuena kolikoak dira; zaldia heriotza ekarri diezaioke. Beraz, kolikoak beti urgentzia medikoak dira. Hori dela-eta, zaintzaileak gaixotasun hau ezagutzeak berebiziko garrantzia du. Zaldia da koliko gehien jasaten duen animalia, izan ere, 30-35 zm-tako hestea du. Bestalde,

urdail txikia dauka, eta urdail-igarotze arina; beraz, elikagaia digestioa guztiz egin barik helitzen da hestera. Zaldiak berezkoa du hori; horri esker arina izaten da harrapakarietatik ihes egiteko. Bestalde, kolikoak dietak ere sortu ditzake; hozteak edo estresatuta egoteak ere bai.

### Zaldiaren onurak

Zaldian ibiltzeak onurak dakartza nahasmen neurologikoa, motorra eta psikologikoa dutezentzat. Trostan joatea oinez ibiltzea legez da, sentsazio berberak sortzen ditu. Beraz, mugimenduagaz ohitzen laguntzen du. Onurak eskaintzen ditu artikulazioetan, muskuluetan eta orekan. Gainera, zaldiekin hartu-eman izateak komunikazio eta jarrera arazoak dauzkaten ere on egiten die, batez ere, haur eta gazteen kasuan.

Boxerra daukat. Bero egiten duenean itotzen dela dirudi eta mendira goazenean jarraitzea kostatzen zaio. Beroa arriskutsua izan daiteke? Alaitz (Durango).

Bero handia egiten duenean txakurrek ezin dute ariketarik egin, eta kotxe barruan gelditzen direnean bero-kolpea jasan dezakete; arnasestua, balantzak, ezin ibilia... Freskatu eta berehala albaitariarengana eroan behar dira. Arnasteko zailtasun handiagoa duten arrazak dira sudur motzekoak; boxer edo bulldog modukoak. Txakurrek ez dute izerdirik botatzen, eta beroa askatzeko arnasestua egiten dute, baina ez da eraginkorra. Beraz, bero zapa dagoenean ariketak ekidin eta ur asko edan.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)



Alberto Cimarro  
Etorbide Albaitari Klinika

# GARAI



# MAÑARIA



# MALLABIA



# Garaiko JAI EGITARAUA

## UZTAILAK 23, BARIKUA

Arratsaldeko 21:30ean,  
ASTOPROBEN ERAKUSKETA

1. IGOR OTAOLEA
2. ARTABEITTI
3. VITORIO CELAYA

Gaueko 23:30ean, Gau dantza  
IZER taldearen eskutik.

## UZTAILAK 24, ZAPATUA

Arratsaldeko 20:00etan,  
DONIEN ATXA jartzea.

Ondoren: ezpatadantzarien saioa.  
Gaueko 23:00etan: KONTZERTUAK

## UZTAILAK 25, DOMEKA

Goizeko 10:30ean, txistulari,  
dantzari eta agintarien kalejira.

11:00etan, MEZA NAGUSIA  
San Migel Eleizan.

Ondoren: Ohiko Santiago imagina-  
ren PROZESIOA Elizabarriraino  
apostoluari omenaldia eginez,  
AGINTARIENA ETA GERNIKAKO  
ARBOLA dantzatzuz.

Ondoren: EZPATADANTZARIAK  
herriko enparantzan.

Ondoren: DURANGALDEKO  
ASTO LASTERKETA

Sariak:

1. 60€ eta garaikurra.
2. 50€ eta txanpain botila bat
3. 40€ eta txanpain botila bat

Arratsaldeko 18:30ean, MERINAL-  
DEKO ERREGELLEN erakustaldia.

Gaueko 23:00etan, LAJA II,  
NARBAIZA eta ALABIER

## UZTAILAK 26, ASTELEHENA

Goizeko 10:30ean, Txistulari, dantza-  
ri eta agintarien kalejira.

11:00etan, ELIZABARRIN, MEZA

NAGUSIA. Ondoren, bezperako  
ospakizunez osaturik Santiago imagi-  
naren PROZESIOA parrokiaraino.  
Ondoren: EZPATADANTZARIAK  
herriko enparantzan eta jarraian  
Aureskua, lehengo gizonak eta  
ondoren andrak.

Ondoren: TRIKI-POTEOA  
Arratsaldeko 19:00etan, TORTILLA  
TXAPELKETA. Partaideek ekarri

behar dabe dena: sua, arrautzak,  
olioa, kipula, patatak eta gatza.  
Gaueko 21:30ean, Gau dantza  
TI-TAU taldearekin.

## UZTAILAK 27, MARTITZENA

Umeendako JOLAS PARKEA:

Goizeko 11:00etatik 14:00etara.

Arratsaldeko 16:00etatik  
19:00etara.

## UZTAILAK 28, EGUAZTENA

Arratsaldeko 18:00etan,  
KORRIKA TXIKIA

Arratsaldeko 18:30ean, Berehalako  
MUS TXAPELKETA plazan.

Sariak:

- 1-. 80€, txapela eta txanpain botila bi
- 2-. 50€ eta txanpain botila bi
- 3-. 30€ eta txanpain botila bi
- 4-. txanpain botila bi

Izen-ematea: 10€ bikoteko

## UZTAILAK 29, EGUENA

14:30ean, Jubilatuen bazkaria.

Arratsaldeko 18:30ean, Berehalako  
BRISKA TXAPELKETA plazan.

Sariak:

- 1-. 80€, txapela eta txanpain botila bi
- 2-. 50€ eta txanpain botila bi
- 3-. 30€ eta txanpain botila bi
- 4-. txanpain botila bi

Izen-ematea: 10€ bikoteko

## UZTAILAK 30, BARIKUA

Arratsaldeko 19:00etan,  
ANTZERKIA

Gaueko 22:00etan,  
BERTSOLARIAK balkoitik balkoira:

Andoni Egaña, Eneko Abasolo  
"Abarkas" eta Jon Maia

Ondoren: Erromeria LAIOTZ  
taldearekin

## UZTAILAK 31, ZAPATUA

Goizeko 11:00etan, MEZA

Ondoren, DANTZARIAK

Ondoren, DURANGALDEKO  
IGEL TXAPELKETA

Sariak:

- 1-. Pernila
- 2-. Bi untxi
- 3-. Gazta bat

Arratsaldeko 18:30ean, ASTRO  
PROBEN ERAKUSKETA

1-. MAIORA ELKARTEA

2-. ATERPE

3-. URROLA

4-. SATZIBAR

Erakusketa biak kontutan harturik

SARIAK:

- 1-. 350€ eta manta
- 2-. 300€ eta garaikurra
- 3-. 275€ eta garaikurra
- 4-. 250€ eta garaikurra
- 5-. 225€
- 6-. 200€
- 7-. 175€

Gabeko 23:00etan, Erromeria  
LUHARTZ taldearen eskutik.

## ABUZTUAK 1, DOMEKA

14:30ean, HERRI-BAZKARIA

Ondoren, erromeria ANSORREGI  
taldeagaz

Garaiko Udalak Santixan jai  
zoriontsuak opa deutsuez!





# Astebeteko jaiian murgiltzera

Uztailaren 23tik abuztuaren 1era iraungo du jaiak

**H**erri txikia izan arren, jai luze eta oparoak antolatu ohi dituzte Garain, eta aurten ere aste oso bateko egitaraua eratu dute. Uztailaren 23an hasiko dira jaiak, abuztuaren 1ean amaitzeko. Santiago, Santa Ana eta San Inazio bata bestearen atzetik lotuz, ekitaldi sorta ugaria izango da aukeran.

**Hilaren 25ean ohiko ekitaldi esanguratsua ospatuko da: Santiago irudiaren prozesioa**

Uztailaren 24an jasoko dute Donien Atxa, iluntzeko 20:00etan. Ondoren, ezpatantzariak irtengo dute plazara; hilaren 25, 26 eta 31n ere izango dira dantza saioak. Bereizgarri moduan, 25ean *Merinaldeko errege-la* erakustaldia burutuko dute 18:30ean.

Hilaren 25ean ere, ohiko ekitaldi esanguratsua ospatuko da, Santiago irudiaren prozesioa, hain

zuzen. Elizaberriraino joango dira herritarrak, *Agintariena* eta *Gernikako arbola* dantzatzuz apostolua omentzeko.

### Txapelketak

Ospakizunekin lotutako lehiak ere antolatu dituzte jaietarako: tortilla txapelketa 26an, musa 28an, briska 29an eta Durangaldeko Igel Txapelketa 31n. Txapelketa guztietan sariak egongo dira onenentzat.

Umeengan ere pentsatu dute Trumoitte kultur elkar-tekoek. Ekintzen artean, jolas-parkea ipiniko dute hilaren 27an, eta 'Korrika txikia' egingo dute 28an, arratsaldeko 18:00etan. Bestalde, jubilatuentzako bazkaria atonduko dute 29an. Baina, hala ere, hau ez da bazkari bakarra izango, abuztuaren 1erako herri-bazkaria deitu dute eta antolatzaileek.

**Umeentzako antolatutako ekintzen artean, 'Korrika txikia' egingo dute hilaren 28an**

### Balkoitik balkoira

Egitarauaren baitan, ezin ahaztu bertsolaritza. Uztailaren 30ean dagoeneko modan dagoen 'balkoitik balkoira' deritzon saioan jardungo dute Andoni Egaña, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Jon Maia bertsolariek. Zaletuek hor dute udarako zita interesgarria, gaueko 22:00etan hasiko da saioa.

## Asto-proba txapelketa eta asto lasterketa

Astoa ere protagonista izango da Garaiko jaietan. Hilaren 23an izango da lehenengo proba, Igor Otaolea, Artabeitti eta Vitorio Celayaren astoekin. Bigarren proba hilaren

**Uztailaren 25ean Durangaldeko asto lasterketa jokatu dute Garain, meza ondoren hasita**

31koa izango da: Maiora elkarte, Aterpe, Urrola eta Satzibar elkarteko dira lehian. Bi saioetako onenak 350 euro eta manta irabaziko ditu.

Bestalde, uztailaren 25ean Durangaldeko asto lasterketa jokatu da, meza ondoren hasita. Helmugara lehenengo ailegatzen den parte-hartzaileak 60 euro eta garai-kurra eskuratuko ditu.



## Erromeriaren plazan, dantza eta jaia

Makina bat talde pasatuko da oholtzatik

Zelan ez, herriko jaietan musikarik ezin da falta. Garain, erromeriaren aldeko apustua egin dute, tartean kontzerturen bat edo beste izan arren.

Izer taldeak zabalduko du musika egitaraua, hilaren 23an. Dantzaldirako aukera eskainiko du talde honek, uztailaren 25ean Laja II., Narbaiza eta Alabierrek egingo duten moduan. Hurrengo egunean ere, astelehenean, Ti-Tau taldeak alaituko du jaiak.

Hurrengo asteburuan, egunero izango da erromeria. Barikuan Laiotz taldea igoko da taula gainera, bertso saioaren

ondoren; zapatuan Luhartzek ipiniko ditu dantzan herritarrak; domekan, bazkalostean, Ansozregi taldearen esku egongo da giroa animatzea.

Rock kontzertuak hilaren 24rako antolatu dituzte, gaueko 23:00etatik aurrera.

**Izer, Laja II., Narbaiza eta Alabier, Ti-Tau, Laiotz, Luhartz eta Ansozregi taldeek joko dute erromerian**



# Mañariko JAI EGITARAUA

## ABUZTUAK 14, ZAPATUA

17:00etan: ANDRA MARI DANTZA  
TALDEAren emanaldia  
20:00etan: TXUPINAZOA eta  
SAGARDOTEGI IBILTARIA  
23:00etan: SUNKERS magoa  
24:00etan: Erromeria LAIOTZ  
taldeagaz

## ABUZTUAK 15, DOMEKA

11:00etan: MEZA  
11:30ean: DANTZARIAK  
17:00etan: KARABINA JAURTIKETA  
18:00etan: LAU T'ERDIKO PILOTA  
txapelketaren finala  
23:00etan: TRIO VERACRUZ  
taldearen kontzertua  
24:00etan: TRIKI TA KE  
taldeagaz erromeria



## ABUZTUAK 16,

### ASTELEHENA

11:00etan: MEZA  
11:30ean: DANTZARIAK  
12:00etan: HAUR PARKEA  
12:00etan: HERRIKO PILOTA  
txapelketaren finalak  
14:30ean: HERRI-BAZKARIA  
17:00etan: BRISKA ETA IGEL  
TXAPELKETA  
23:00etan: DRINDOTS  
taldeagaz erromeria

## ABUZTUAK 21, ZAPATUA

16:00etan: XXIII. Andra Mari Saria  
TXIRRINDULARI LASTERKETA

**Bikain** Aldebarrena auzoa  
Eskailerak: 946 20 07 62-90  
Admin.: 946 20 24 96 - 946 20 00 78  
48212 Mañaria (Bizkaia)  
info@bikain.com  
www.bikain.com

**MORTEROS Y REVOCOS**



**HARATEGIA - URDAITEGIA**

**BIZKARRA**

BASERRIKO OKELA  
TXORIZOAK ETA  
ODOLOSTEAK

Tel.: 94 681 69 45 • Mug.: 615 78 12 47 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

**Gaztelu**  
CARPINTERIA

Elondoeko eta gaztainondoeko leihoak  
(PVC eta aluminioa), guk eginikoak

**AROTZERIA ORO HAR:**

- Ate blindatuak
- Tarimak
- Barrualdeak
- Zokaloak

Aldabarrena Auzoa • MAÑARIA • Tel.: 94 681 81 74  
Faxa: 94 620 03 58 • Sakelekoa: 656 787 524

**ERREKONDO**  
jatetxea

Andra Mari, 1  
Mañaria - Bizkaia  
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua  
astelehenetik ostiralera.

Asteburuetan bazkariak  
eta afariak enkarguz.

Especialitatea: Txuleta erreka.

# Dantza taldearen urtemuga

## Urteurrena gogora ekartzeko dantza alardea prestatuko dute

**E**kitaldi ugari izango ditugu Mañariko jaietako egitarauan. Dantza taldeak emanaldia eskainiko du abuztuaren 14an, 17:00etan plazan. Urteurreneko ospakizuna

antolatzen dihardu Andra Mari dantza taldeak. Kultur taldea sortu zutela 25 urte direnez, urtemuga gogora ekarri gura dute jaietan. Taldekideak gogotsu dabilta dantza alardea prestatzen. Indartsu jarraitzen dutela dantzan erakutsiko dute, herriko plazan eskainiko duten saioan.

Txupinazoa 20:00etan jaurtiko dute. Jarraian Sagardo Ibiltariak alaituko du jai giroa. Sunkers magoak 23:00etan eskainiko du emanaldia. Meza eskainiko dute, 11:00etan, abuztuaren 15ean Mañarian.

**Txupinazoa jaurtitzerakoan Sagardo Ibiltariak alaituko du jai giroa**



Dantzariak 11:30ean saioa eskainiko dute. Umeentzako parkea 12:00etan antolatuko dute. Herriko pilota eskolak antolatutako torneoaren finalak 12:00etan jokatuko dituzte. Herri-bazkarian batuko dira 14:30ean mañariar ugari.

**Herriko pilota eskolak antolatutako torneoaren finala jokatuco dute**

Briska eta igel txapelketa 17:00etatik aurrera jokatuco dira. Txirindulari lasterketa, berriz, abuztuaren 21ean jokatuco dute. Inguruko afizionatu mailako txirindulariak 16:00etan bilduko dira XXIII. Andra Mari Saria lehiatzeko.



## Erromeria doinuek gau giroa alaituko dute

### Erritmo dantzagarriak eskainiko dituzte

Musika arloan erromeriak izango dira nagusi Mañariko jaietan. Laiotz taldeak abuztuaren 14an 24:00etan eskainiko du bere emanaldia. Triki Ta Ke taldearen musika abuztuaren 15ean helduko da Mañarira. Drindots musika talde ezagunak, berriz, abuztuaren 16an du hitzordua jarrita, Mañariko gauari erritmoa jartzeko.

Trío Veracruz taldearen gitarra eta ahotsak hegoamerikako

doinuak ekarriko ditu, abuztuaren 15ean 23:00etan, jaietara. Kontzertuan gustura entzuteko abestiak eskainiko dituzte.

**Laiotz, Trio Veracruz, Triki Ta Ke eta Drindots taldeak etorriko dira Mañariko jaietara**

**aserradero zugazagoitia agirre maderas**

Aldegoiena, 2-a  
48212 MAÑARIA (Bizkaia)  
Tel-Fax: 94 681 87 98

**Juan Ramon Azkonizaga**  
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

**Banatzailea:**


Cruzcampo Heineken KALIBER SIN GUINNESS SHANDU PEÑACLARA Perrier viña Altorta

*Launa plus*  
Ondua

*Launa plus*  
BODEGAS

www.bodegaslauna.com  
info@bodegaslauna.com  
Tel.: 94 682 41 08

# Mallabiko JAI EGITARAUA



## ABUZTUAK 13, BARIKUA

Open pilota partiduak 19:00etan, Mallabia I kirol etxean. 1) Pradera-Pujana/Albizu-Perez. 2) Uriarte-Olalde/Azpiri-Aldape

## ABUZTUAK 14, ZAPATUA

### Umeen Eguna

12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara UMEENTZAT PARKE BEREZIA: puzgarriak, txalupak... parkean. 19:00etan TXUPINAZOA (Jasokunde abesbatzak botako du). Ondoren, Euskal preso eta iheslarien aldeko BRINDISA eta enkartelada. 19:30ean TXOKOLATA DA plazan. 22:15ean PILOTA PARTIDUAK Mallabia I kirol etxean: Olazabal-Merino II / Idoate-Larrinaga eta MTZ.de Irujo-Laskurain/ Xala-Zubieta.

Mallabitarrentzat sarrerak abuztuaren 2tik 13ra bitartean egongo dira sal-

gai, Udaletxean. 15 eurotan Mallabiko langabetu, ikasle eta jubilatuentzat bere egoeraren justifikazio txartela erakutsiz. Gainerakoak 20 euro. Pertsona bakoitzari bina sarrera emango zaizkio gehienez. Takila 21:30etik aurrera zabalduko da, eta hemen sarrerak denentzat 25 eurokoak izango dira. 00:00etan ERLAXI taldearekin erromeria plazan.

## ABUZTUAK 15, DOMEKA

### Andra Maria Eguna

11:00etan: MEZA NAGUSIA.  
12:00etan TRIKITILARIAK eta jarraian EUSKAL HERRI KIROL EN ERAKUSTALDIA Mallabia I kirol etxean. AIZKORAN: Biurri, Aitxu eta Zelai II. GAZTETXOEN HERRI KIROLAK: A TALDEA (Aizkoran: Ioritz Gisasola. Harri-jasotzen: Aitor Garitagoitia. Txokor batzen: Gartxot Mugarza). B TALDEA (Aizkoran: Jon Gisasola. Harri-jasotzen: Aitor Elordi. Txokor batzen: Odei Ezpeleta)

17:30ean MALLABIKO XX. HARRIJASOTZE SARIA HARRI TXIKIA.

100 kg.-ko zilindro zaharra eta 100kg.-ko bola. Harri-jasotzaileak: Aimar Irigoien (Gipuzkoa), Izeta III. (Gipuzkoa), Izeta IV. (Gipuzkoa), Belioso (Gipuzkoa), Goiketxe (Gipuzkoa), Urrutia (Nafarroa), Igoa (Nafarroa).

Gainerako parte-hartzaileei 250 euroko dieta emango zaie. Dagoen marka topatzen duenari sari berezia emango zaio, 180 eurokoa. Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea egun berean amaituko da.

### SARIAK

- 1.- 800 euro garaikurra eta txapela
- 2.- 650 euro eta garaikurra
- 3.- 500 euro eta garaikurra
- 4.- 400 euro

17:30ean TUTE, MUS, BRISKA eta ASTO TXAPELKETA tabernetan.

23:00etan SUAK (bouqueta). Ondoren, GOLDEN APPLE QUARTET parkean.

## ABUZTUAK 16, ASTELEHENA

### San Roke Eguna-Nagusi eta Koadrilen Eguna

11:00etan: MEZA Nagusia.

11:00etan: XI. PAELLA LEHIAKETA, taldeen izen-ematea momentu berean izango da. SARIAK:

- 1.- 160 euro eta garaikurra
- 2.- 110 euro
- 3.- 60 euro

14:00etatik 18:00ak arte jubilatuen bazkaria Probalekuan. Bazkalostean trikitilariak egongo dira: KUPELA taldea.

18:00 Koadrilen arteko HERRI JOLASAK Mallabia I kirol etxean. 20:00etatik 01:00etara Mallabitar guztientzat TXERRIA ETA SAGAR-DOTEGI IBILTARIA plazan eta erromeria. Oharra: Txerria jateko hiru pin-txo euro bat izango da, eta sagardoa doan.

MALLABIA I KIROL ETXEA XXII. IDI PROBA TXAPELKETA Abuztuaren 20, 21, 22 eta 23an 22:00etan.

### SARIAK

- 1.goa 1.600 euro, garaikurra, txapela eta mantak.
2. 1.400 euro eta garaikurra
3. 1.300 euro eta garaikurra
4. 1.200 euro eta garaikurra
5. 1.100 euro
6. 1.000 euro
7. 950 euro
8. 860 euro
9. 770 euro
10. 680 euro
11. 600 euro
12. 520 euro

OINARRIA: Nahiz eta sarietara ez heldu, 30 untzeko marka gaintzen duen idi pareak, 350 euroko saria izango du.



## ONDO PASATU ANDRA MARI JAIETAN!

MALLABIKO UDALA



# Jasokundek botako du txupinazoa

Urte "gogorra baina ederra" izan du abesbatzak



Jasokunde abesbatzak jaurtiko du aurten Andramari jaiei hasiera emango dien txupinazoa. Abuztuaren 14an izango da, 19:00etan. Oh Happy Day! programaren bidez Mallabia herria Euskal Herrira zabaldu dute, eta hori eskertu gura diete. Iratxe Uribelarrea abesbatzako zuzendariak jaurtiko du txupinazoa, eta abesbatza osatzen duten kideak

ere inguruan izango ditu. Urte "gogorra baina ederra" izan ei da aurtengoa. Oh Happy Day! telebista saioko abenturak "lan asko" ekarri ziren, eta "saioan aurrera egin genuen heinean geure buruagaz ere exigenteago bihurtu ginen". Fruituak ere eman zituen, ordea; finalera heldu eta hirugarren geratu ziren.

Jasokundek urtean saio bat baino gehiago egiten ditu herrian. Maiatzeko Aste Kulturean, Santa Zezilia egunean eta Gabonetan abesten dute. Gainera, aurten Gabonetako saioa Pantxoa eta Peiorekin batera eskainiko dute. Bikotearen abesti ezagunek osatutako kontzertua eskainiko dute: "Aurretik ere herriko elkarteekin elkarlanean ibiliak dira, eta ideia proposatu genienean pozik onartu zuten", adierazi du Uribelarreak.

Ikuskizuna ondo prestatu eta ahotsak bateratzeko hainbat entsegu egin beharko dute, baina "ilusioz" hartu duten zeregina da.

**Oh Happy Day! saioan finalera heldu ziren eta hirugarren geratzea lortu zuten**

**Aurten Gabonetan eskaini ohi duten kontzertua Pantxoa eta Peiorekin batera egingo dute**

# Golden Apple Quartet taldearen emanaldia

Abuztuaren 15ean 23:00etan izango da

Aurten ere ekitaldiz beteta datozkigu Andramari jaiak. Musikari dagokionez, abuztuaren 14an Erlaxi taldeak erromeria eskainiko du plazan, eta hurrengo egunean Golden Apple Quartet taldearen kontzertuagaz gozatzeko aukera egongo da.

Abuztuaren 16an, 20:00etatik 01:00etara, Sagardotegi Ibiltariak bisitatu du Mallabia. Txerri okeladun pintxoak ere salduko dituzte hiru euroan.

Sagardoa doan banatuko dute. Paella txapelketan parte-hartzea zabala izango da. Irabazleak 160 euro jasoko ditu.

**Abuztuaren 16ko iluntzean Sagardo Ibiltaria etorriko da; sagardoa dohainik banatuko dute**



**maquinaria OIZ, s.l.**  
 MAKINA BERRI ETA ERABILIEN SALEROSKETA

Goitondo Industrialdea  
 19 Pabilloia  
 Telf. eta Faxa 943 17 71 57  
 48269 MALLABIA (Bizkaia)  
 E-mail. maquinarioiz@telefonica.net

ARITZ GARCIA SARRIUGARTE • Mugikorra 620 95 80 07

**Excavaciones Jon Lur mugimenduak**  
 • Jon Garitagoitia Gallastegui •

MOTA GUZTIETAKO INDUSKETAK HONDAKINDEGIA

Pagotxueta, z/g • GERA • 48269 MALLABIA  
 Tel.: 943 17 26 54 • Mug.: 629 446 099

**GRAPHIDAPS** SIA  
 SERVICIOS DE IMPRESION

Goitondo Goikoa industrialdea z/g.  
 Ermua-Markina erp.  
 48269 MALLABIA (Bizkaia)  
 Telefonoa 943 170 168  
 Faxe 943 170 050

**IMPRESA • INPRIMATEGIA**

tarjetas • gutunak • tarifas  
 • calendarios • katalogoak •  
 karpetak • sobres • aldizkariak  
 • oroigarriak • eta abar

# Irujo eta Xala nor baino nor gehiago

Laskurain eta Zubieta izango dituzte bizkarzain



**G**oi mailako pilota partiduak antolatuta dituzte jaietan. Abuztuaren 14an, 22:15ean, profesionaletako partidu bigaz gozatzeko aukera izango dugu. Lehenengo, Olazabal eta Merino II.a Idoate eta Larrinagaren kontra lehiatuko dira. Ondoren, Irujo eta Laskurainek Xalaren eta Zubietaren kontra jokatuko dute.

Partiduetarako sarrerak abuztuaren 2tik 13ra salduko dituzte Udaletxean. Mallabiko langabetu, ikasle eta jubilatuek 15 eurotan lortu ahalko dituzte.

Abuztuaren 15ean beste hitzordu entreteniga-

**Olazabal eta Merino II.a Idoate eta Larrinagaren kontra lehiatuko dira atariko partiduan**

**Abuztuaren 15ean harri txikiei ekingo diete hainbat harri-jasotzailek; esaterako, Irigoien eta Izeta III.ak**

rri bat dago Mallabia I kirol etxean, XX. Harri-jasotze Sariagaz. 17:30etik aurrera, harri txikiagaz lanean ibiliko dira Aimar Irigoien, Izeta III.a, Izeta IV.a, Belioso eta Goiketxe.

Egun berean, baina eguerdian, Biurri, Aitxu eta Zelai Ila aizkolarien jarduna egongo da. Ondoren, gazteen saioak ere erakutsiko dituzte.

Amaitzeko, abuztuaren 20tik 23ra, urtero legez, idi proba saioak egongo dira Mallabia I kirol etxean. Irabazleak 1.600 euro jasoko ditu; bigarrenak 1.400 euro eta hirugarrenak 1.300 euro. 30 unteko marka gainditzen dutenek 350 euro jasoko dituzte.

## HERRIKO TABERNA

- plater konbinatuak, bokatak pintxoak, eguneko platera, kazolak
- bazkariak eta afariak enkarguz, menu bereziak
- asteartetan itxita

Askalde 3 • Mallabia • Tel.: 943 17 49 52

## JUBILATUEN ETXEA

943 17 66 02 • MALLABIA

¥ Argidun errotuluak  
 ¥ Autoen errotulazioa  
 ¥ Barne seinaleztapena  
 ¥ Neon  
 ¥ Inpresio digitala  
 ¥ Fresa bidezko mozketa eta grabatua: formatu handia

**ROTEK**  
rótulos

Fernando Sánchez Alcoba  
656 78 19 52

Tel./Faxa: 943 17 00 36 ¥ e-mail: rotek@telefonica.net  
Goitondo Behekoa Ind., C1 partz. - 5 behea ¥ 48269 MALLABIA (Bizkaia)

**Bosch Car Service**

- Gasolina injekzioa
- Diesel injekzioa
- Elektrizitatea / Elektronika
- Pizketa
- ABS, ESP Frenoak
- Mantenu mekanikoak
- Motor mekanika
- Hozte sistema
- Ordutegia: 08:00etatik 20:00etara

**Uranga Autoak**  
Polig. Goitondo, P.1 Bajo  
48269 MALLABIA (Bizkaia)  
Tel.: 943 17 97 17  
Fax: 943 17 97 29

**BETEARTE**

BI-3342 errep., pk. 38 • Areitio Garaia  
48269 Mallabia (Bizkaia)



# IRITZIA >

Sei hankako mahaia



Jose Luis Zubillaga  
Ezker Batua

## Gutunak @

### Lurreko pariak

Krisi garaian gaudela nahiko argi dago. Orain, kontua krisi honi nola egiten diogun aurre zehaztea da. Horretarako ezinbestekoa zaigu jakitea zelan heldu garen egoera honetara. Krisia ez da soilik finantzarioa izan; egia da finantzarioa izan dela krisiaren gizarteratzea, eta krisiaren zentzu horrek izan du oihartzun gehien, hain zuzen, gure poltsikoetan zuzenean eragina izan duelako. Baina garapen eredu kapitalista, orokorrean, eta horrek erdietsi nahi duen mugagabeko hazkundera, krisiaren oinarrian kokatzen da. Krisia gizarteratu aurretik bagenituen egoeraren lehenengo zantzuak arlo sozialean: kontratazio prekariora, zerbitzu sozialen eta osasunaren pribatizaziozko urratsak. Ingurumenak ere pairatu du: harrobiak parke naturala, planifikazio jasangarririk gabe eta kontrol barik eraikitako garraio azpiegiturak. Eta esandako moduan, garapen eredu horrek kontrol bako sistema finantzarioa sustengatzen zuen, eta horrek ere jarrera espekulatiboak ahalbidetzen zituen. Egoerak eztanda egin duenean bakarrik konturatu gara sistema hori krisi egoeran zegoela. Konturatze hori, behintzat, ez da txarra izan.

Horrelako aurrekarietan hartu beharreko bidea argi dago: aldaketa. Horrek ez du esan nahi botere publikoetatik martxan jarri diren neurri jakinak hartzearekin nahikoa denik. Denak berdin jarraitzeko diseinatuak daudelako, etorri zaigun ekaitza jasateko eta berriro ere garapen eredu berarekin aurrera segitzeko. Zauriari tiritak jartzen saiatzen ari dira. Testuinguru horretan sartzen ditugu, besteak beste, 8/2010, 'Zapaterazo' ezizenarekin ezaguna den errege lege dekretuaren neurriak, eta konkretuki herri administrazio langileen soldata masaren %5eko murrizketa. Argi dago, langileek ez badute krisian sartu den mugagabeko garapen eredu hori diseinatu, langileek ez badute etekinik atera kapital handiek egin duten operazio espekulatiboetatik, orduan, zergatik ordaindu behar dute langileek?

Horregatik, Durangoko Udalean langileen soldata jaisteko proposamena aurkeztuz gero gure kontrako bozka jasoko du. Jakin badakigu oinarritzko soldata eta lanpostu mailako osaga-

rriak estatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskumena direla. Baina badago soldataren beste atal bat, berariazko osagarria hain zuzen ere, udalaren eskumenekoa dena. Uste dugu osagarri horrekin orekatu beharko genukeela aipatutako dekretuarekin burutu nahi den bidegabekeria.

Soldata masaren murrizketarekin, Aralarrek egiten dituen kalkuluen arabera 180.000 euro inguru aurreztu daitezke; gure ustez, langileen soldata ukitu baino lehen beste gastu batzuk murriztu behar dira. Hasteko enpresa publikoen murrizketa burutu daiteke. Esaterako, aspaldidanik proposatu izan dugu Landa-ko erakustazoka kudeatzeko ez zela beharrezkoa enpresa publiko bat eratzea, zuzenean kudeatu daitekeelako. 280.000 euro bideratzen dira urtero enpresa hori mantentzeko.

Beste murrizketa bat liberatuta dauden zinegotzien soldata murriztea izan behar da. Gaur egun, ordezkariak dugun taldeek liberatu bat edukitzeko aukera dugu, eta hori defendatu genuen eta defendatzen jarraitzen dugu. Baina helburua soldata duin baten truke herria hobetzeko lan egitea da, eta ez gaur egungo soldata ordaintzea. Horregatik %45eko jaitsiera proposatzen dugu. Horrela, 80.000 euro inguru aurreztuko genituzke. Azkenik soberan dauden hainbat gastu ere murrizteko aukera dago: gobernu taldeko kideen telefono mugikorak -alkate eta alkate ordearenak izan ezik- protokolo gastuak ...

Finean, Aralarrek uste du badagoela dirua non hartu langileen soldata ukitu baino lehen.

Bukatzeko, gai honen inguruan azken gogoeta bat. 2006an Bizkaiko udal bakoitzak zuen zorraren inguruko datuak eskatu genituen. Bertan ikusi ahal izan genuen, Durangok 0 euroko zorra zeukala eta, adibidez, Basaurik 4 milioia. Zertara dator defizitari aurre egiteko neurri berberak aplikatzea udal guztiei? Kasu honetan, 'elkartasuna' kontzeptua txarto ulertuta dagoela deritzogu.

Dani Maeztu, Aralarreko zinegotzia Durangoko udaletxean

### HELDU ez itxi

Aste honetan pertsiana itxiko du HELDUk, etorkintzako lege eta gizarte mailako arretarako zerbitzua, Ezker Batuak sortu zuena Etxebizitza eta Gizartegaien departamendua kudeatzen zuenean aurreko Eusko Jaurlaritzan, aitzindaria izan zelarik eta gizartegintzan zeregin garrantzitsua bete zuelarik. Bigarren etxea araz kanpoko etorkin askorentzat, bulego horietan aurkitzen baitzuten, paperak lortzeko gida ez ezik, laguntza morala eta psikologikoa.

### Jaurlaritzaren erabakiak milaka espediente utzi ditu mahai gainean

Jaurlaritzak baliabide estimatu hau itxeko erabakiak milaka espediente uzten ditu mahai gainean, eta inork ez daki nora jo hemendik aurrera. Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak, aitortu dutenez, ez dauka datorrenari aurre egiteko plan zehatzik, eta ez da oinarriko zerbitzuekin ezelako aurreko harremanik egin.

HELDU lehen harrerarako sistemaren pieza bat gehiago zen. Etorkin zerbitzu sozialetara jotzen zuen eta handik orain desagertu den baliabidera. Orain, gizarte langileek ez dakite nora jo.

Jaurlaritzak Gemma Zabaleta silburuaren ahotik dioenez, HELDUk ez du lekurik zerbitzu sozialetan egiten ari diren berregituraketan. Paradoxa da, Jaurlaritzak aditzera ematen baitu aurrerantzean hirugarren sektorearen zeregina izango dela etorkinen harrera, baina hirugarren sektoreko erakundeek esana dute ez dutela HELDU ordezkatu.

Izan ere, joan zen astean hogeitatu bat erakunde baliabide hori goraiatu duen manifestua sinatu zuten, "zenbatu ezin ahal kasu" bideratu direlarik bertara euren konplexutasunagatik.

**Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta - astekaria@anboto.org**  
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN**  
**zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia**  
**helarazteko helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten ize-  
nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz  
zuzenduta publikatuko dira.

*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte  
2010eko uztailaren 16a - 9. urtea - 382 zk.

Laguntzailea:  Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.  
Erredakzio burua: Joseba Derteano.  
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.  
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.  
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.  
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.  
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.  
Argazkilaria: Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



### **Narru Jatetxea**

San Agustin 22, Elorrio  
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.  
Pintxoak.  
Eguneko menua.  
Menu bereziak.  
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



### **Betixu Jatetxea**

Iturburu 9, Iurreta  
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.  
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.  
Razioak terrazan.



### **Pedro Juan**

San Antonio, 1 Berriz  
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.  
Karta.  
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




### **Plateruena kafe antzokia**

Landako etorbidea 4-a  
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.  
Taldeentzako menu adostuak.  
Askariak.

# Jatetxe gida



### **Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea**

Huribarrena 8, Otxandio  
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.  
Eguneko menua.  
Asteburuetan menu berezia.



### **Errekondo Jatetxea**

Andra Mari 1, Mañaria  
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.  
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.  
Espezialitatea: Txuleta errea.



### **Hotel Lagunetxea**

Urkiolako Santutegiaren ondoan  
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.  
Enpresa-bilerak.  
Denetariko ospakizunak.  
Askariak.

## Hemen agertu gura badozu,

# DEITU

## 94 621 79 02



# KIROLAK >



**A**nder Antxia pilotariak (Abadiño, 1980) bigarren urtez segidan lortu du esku pilota Zirkuitu Profesionaleko Rankinga irabaztea. Erregularitasuna saritzen duen rankingean 516 puntu batu ditu; tokitan geratu dira Mikel Rafael (302 puntu) eta Ibai Bengoetxea (290 puntu), bigarren eta hirugarren postuetan. Gainera, denboraldia borobiltzeko Madrilgo Masterra eta Nafarroako lau t'erdiko txapelketa ofiziala irabazi berri ditu.

Joan zen asteburuan jokatutako Nafarroako Txapelketako finalean abadiñarrak 22-18 menderatu zuen Jorge Nagore Labriten. Bero itzela egin zuen Labriten, pilotarien lana zailduz. Irurtzungo aurrelaria sake-erre-

## Beste denboraldi borobil bat

matean saiatu zen, eta ez zion Antxiari bere ohiko jokoa gartzen utzi. Markagailuan parekotasuna izan zen nagusi. Nagore 17-18 aurreratu zen, baina azkeneko lau tantoak bata bestearen atzetik lortu zituen Antxiak. Sakez eta gantxo egindako tanto banak eta Nagorek huts egindako beste batek eskura utzi zioten garaipena.

**Madriren protagonista berak** Madrilgo Masterrean ere pilotari berak izan ziren protagonista astebete lehenago. Kasu honetan, txapela 10 tantora arteko 'joko'-etan erabaki zen, eta Antxia hirugarrenaren beharrik barik gailendu zen (10-7 eta

**Asteburuan Nafarroako lau t'erdiko txapela jantzi zuen**

10-9). Hala ere, emaitzek erakusten dutenez, pareko ibili ziren pilotari biak.

Azkeneko urte bietan Madrilgo Masterra abadiñar bik irabazi dute; 2009an Egoitz Amantegi nagusitu zen. Amantegi, bere aldetik, bosgarren postuan geratu da Zirkuitu Profesionaleko Ranking-ean 252 puntugaz. ■ J.D.

### 18 Iturriagari okertu egin zaio lesioa

Errekupeazio prozesua bide onetik zihoala ematen zuenean, ustekabeen, lesioa okertu eta berriro egin behar izan diote ebakuntza Eneritz Iturriaga txirindulariari.

### 19 Javi Etxebarriari elkarrizketa

Berriztarra Kaxmirren kokatuta dagoen Nun mendia (7.135 metro) igotzen ahaleginduko da uztailaren 29tik abuztuaren 30era. Beste sei lagunekin batera joango da.



Hiru astean mugimendurik egin barik egon beharko du errekupeazio prozesua hasi aurretik.

## Denboraldiari agur esan dio Eneritz Iturriagak

Sorbaldako lesioa ustekabea gaiztotu egin zitzaion abadiñarrari, eta berriro ebakuntza egin behar izan zioten Gasteizen

Safi-Pasta Zara taldeko Eneritz Iturriagak (Abadiño, 1980) eroriko bortitza jasan zuen maiatzean l'Audeko Tourrean. Sorbalda eta klabikula apurtu zituen, eta Gasteizko La Esperanza ospitalean ebakuntza egin zioten. Errekuperazio prozesua bide onetik zihuan, harik eta sorbaldan konkorrat bat somatu zuen arte: "Kuri osoa da egun horretan 150 kilometroko entrenamendua egin, eta ez nuela baterik minik sentitu", harritu da Iturriaga.

Medikuak sorbalda aztertu ondoren, egunean bertan ingratsatu zuten: "Barruko burdina eta torlojuak solte nituela esan zidan, eta berriro ebakuntza egin beharra zegoela". Antza, erori zenean baino "txikituago" zuen sorbalda. Hankako tibiatik zati bat kendu eta sorbaldan txerta-

tu behar izan zioten, sei ordu iraun zuen ebakuntzan.

Orain hiru astean geldirik egon beharko du, eta ondoren hasiko du berriro errekupeazio prozesua. Ondorioz, denboraldia amaitutzat eman du abadiñarrak: "Berriro Italiara bueltatu eta lehiari ekiteko puntuan nengoenean etorri da ezbeharra", azaldu du. "Orain, etxean nagoen bitartean, hankek egiten ez dituzten kilometroak buruak egingo dizkit", aitortu du.

### Taldea pattal Giroan

Taldea asko igarri du bere hutsunea Italiako Giroan. "Ez nik eta ez Cilvinaite Ingak ezin izan dugu parte hartu, eta gu gara esperientzia gehien daukagunak. Oro har, ez dugu oso giro ona osatu", penatu da Abadiño-ko txirrindularia. ■ J.D.

Italiara bueltatu eta berriro lehiatzeko puntuan zegoenean etorri zaio ezbeharra

"Hankek egiten ez dituzten kilometroak buruak egingo dizkit geldirik nagoen artean"

## Trinketean gaur hasiko da Euskadiko Txapelketa

Rober Uriartek eta Mikel Gonzalezek binakako partidua dituzte Tornosolon

Gaur ekingo diote trinketean Binakako Euskadiko Txapelketari. Abadiño-ko Tornosolo trinketean partidua bi jokatu dituzte, 19:00etan hasita.

Lehenengoan Abadiño-ko Adiskide Klubeko Rober Uriartek, Etxabarriagaz bikotea osatuz, Huiziren eta Bordaren kon-

Bi bikoterik onenak uztailaren 25eko finalean lehiatuko dira, 11:00etatik aurrera

tra jokatu du. Segidan Berrizko Oizpe klubeko Mikel Gonzalez eta Irazusta Arruti eta Landaren kontra saiatuko dira.

